

AMEZKETA



HERRI KIROLZALE BATEN MEMORIAK

Joxe Mari Otermin

## Albitzuri-aundi, Zealar eta Aintziriko harriak

Amezketan kargajasoketarako zaletasun handia zegoen garai batean. Bai, edozer jasotzeko kirol mota honi “kargajasotzea” deitzen zion. Edozerk balio izaten zuen apustu egiteko, aitzakiarik txikienak jartzen zituen apusturako odolak irakiten: harriak, goldeak, irin-zakua... Herrian, lagunartean egindako desafioak izaten ziren. Ez zen horrelakoetan Federaziora jotzen. Alde bakoitzak bere “epaileak” aukeratu eta besterik gabe egiten ziren apustuak.

Kargajasotzea eta...kargak eramatea ere askoren zaletasuna zen. Bai, kargajasotzearen hurbileko kiroletako bat pisuak alde batetik bestera eramatea izan ohi zen. Adineko amezketarrek bi apustu gogoratzen dituzte barruti honetan. Bata, Bartolome Arteagarena da. Dirudienez, golde handia Olatik Elizegira baietz eraman egin omen zuen apustu eta baita irabazi ere. Beste bat, Manuel Altunarena izango genuke; honek ehun kiloko irin-zakua gauzez Estankotik Elizegira baietz eraman...hori zen egitekoa. Eramanez gero, beretzat izango zen irin-zakua. Igan-de ilunabarreko apustu horietakoa izan zen azken hau ere. Kontua da Manuel Altunak zakua osorik eraman zuela eta aldi baterako irina izan zuela etxeko oremahaian.

Dena den, kargajasotzea aipatzen denean “harria” datorkigu burura. Adituek bi harri moeta bereizten dituzte. Batetik, ikuturik egin gabeko harriak; bestetik, landuak.

Amezketan, ukitu gabeko harrien artean hiru zeuden indartsuen ahala neurtzeko: Albitzuri-aundi herrian, Antziri edo Antzikoa esaten zaiona eta Zealarkoa Aralarren. Bakoitzak bere istorioak baditu, eta liburu honetan sorta polita bildu dugu, irakurlearen gozamenarako.

Azken oharra. Aralar guztian ziren garai batean banaturik proba-harriak. Gu Amezketako artzainek erabili nahi izaten zituztenetara mugatuko gara.

### Harri motak apustuatarako

Gaur egun oso estandarizaturik dago plazaratzen diren harrien egitura: bola, kuadroa, zilindroa, errektangularra...Garai batean ez zegoen horrelako konturik. Harri guztiak irregularrak ziren. Adituek diotenez, Itziariko Arteondo izan omen zen lehenbizikoa landutako harriekin plazaratzen, hau da, bereziki egokitutakoekin.

Arteondo hori –Viktor Zabala, nahiago bada– Itziarren 1886an sortua zen, eta esaten denez, bera izan omen zen lehenbizikoz harri kuadro eta errektangularrekin apustuak egindakoa. Indartsu honek 1910 aldera egin zituen bere lehenbiziko apustuak. Beraz, apusturako harri landuen historia duela gizaldi bat hasitakoa dugu.

Amezketan daudenak edota ezagutu izan direnak bistan denez, lehenagokoak dira. Egigun bakoitzaren aipamena.

### Antziriko harria: 140 kilo

“Antziriko harria” deitzen diogu hori mendi-menditik jaitzitakoa da eta gaur egun Amezketako udaletxean gordetzen dena duzue. Arritzagatik Igaratzara bidean, Pardeluts iturri inguruan, ezkerretara dagoen aran edo



Udaletxean dago Antziriko harria.



Antziriko harria mendian Amezketara jaitsi aurretik.

ordekatxo batean zegoen orain urte batzuk, etzanda, eta eguraldiak eragindako higadura edo erosioaren hartzamarkak gero eta nabarmenagoak ziren. Hori horrela, udaletxean babestea erabaki zen 2008an.

Zenbaiten ustez, bere kokaleku jatorra eta egiaz zor zitzaiena mendikoa izan beharko luke. Agian bai. Alde batera, ez dago gaizki pentsatua. Bistan zegoen, ordea, gero eta pitzadura handiagoak zeuzkala eta egunen batean erabat zartatzekoa arriskuan egon zitekeela.

Gaur egungo Aralarren ez dago garai bateko konturik. Ez dago feriarik; garai batean egiten zuten bezala, artzainek nekez igarotzen dituzte asteburu osoak gaindegi haietan; ez da aspaldion apustu bat bera gin...

Jose Zufiaurrek idatzitako “Pastores, Majadas y Minas en Aralar” artikuluan, gainera, badago beste puntu bat ere azpimarragarria. Aralarren zeuden bi “probaharri” aipatzen ditu, eta agin denean, bukaera hau izan zuten:

*“Hoy día no existen ninguna de las dos piedras, ya que la primera fue rota en pedazos, y la segunda la tiraron rodando por la pendiente ladera del monte”.*





Antziriko harria aurrean dutela, Aimar Irigoien eta Bixente Artola.

Diskutigarria izan daiteke, baina erabaki egokitzat jotzen dut Antziriko ordekan zegoen harria menditik Amezketara jaitsi izana. Eta egunen batean apusturen bat egin nahi baldin bada, antolatzaileen esku jarri daiteke Antziriko ordekarera eraman eta mendian bertan, garai batean egin ohi zen bezala, indarrak probatzeko. Ez da harri astuna; 140 kilo inguru ditu; zakarra da bere igurtzian.

*Garaikotzeko* Jose Etxeberriak esan digunez, garai batean artzain gazte bat baino gehiago ahalegindu omen zen lepoan berdintzen, baina apenas inork lortu zuen hori.

–Ignazio Galartzari entzun izan nion, goitxoraino eraman zuela behin baino gehiagotan, baina ez zuela inoiz lepoan berdintzerik lortu– aitortu digu Jose Etxeberriak. Bere gaztaroan Pardelutsen eduki ohi zuen bere aita Jose Marik txabola, eta ez dago hanka-pauso asko eman beharrik handik Aintziriko ordekarera ailegatzeko.

Jose Etxeberriak esandakoaren arabera, *Elorrain-go* Domingo Artano zen Aintziriko harria neke larririk gabe jasotzen omen zuenetako bat. Besterik ez du gogoan Josek. Domingo Artano Sagastume 2014ko abuztuaren 14an hil zen Elorrain baserrian, 79 urte zituela.

2008ko azaroaren 9an Aimar Irigoienek erakustaldia egin zuen Antziriko harriarekin. Aparteko zailtasunik gabe bizkarreratu zuen errezildarrak.

## Zelarko harria

Antzi edo Antziriko harria esaten zaion bezala, hau ere bi modura aipatzen da: Zelarko harria edo Zealarkoa. Ez da Antzirikoa bezain menderakaitza. Dena den, hau ere indarrak neurtzeko erabili ohi zuten artzain gazteek.

Garaikotzeko Jose Etxeberriak ondo gogoan dauka non zegoen harri hau:

–“Zelar zagok, Pardeluts eta Zotaletaren parean, goen goenean ordekatxo batean...Litekeena da gai batean han





Lorentzo Agirrebarrena, Apaetxekoa, Intxaustiko sarrera nagusian.



San Bartolometan.



Antonio Zubeldia zortzi arroako zilindroarekin.



Harrijasotzaileak eta laguntzailea. XX, XX, Jose Etxeberria eta Antonio Zubeldia.





Kargajasotzea. Ignazio San Martin, Jose Maria Garin, XX, Manuel Aierbe eta Asensio Artola.

ere txabola koxkorren bat egota eta bere hormetatik ateratako harriren bat izatea. Ikusten denez, indarrak probatzera joandako gazte asko izan zuen Zelarko harriak. Horien artean, Larramendiko Pello Sagastume Saralegi. Honek ere jasotzen omen zuen. Arantzaztiko Jose Etxeberriak ere berdintzen omen zuen bizkarrean. Hauek Lontxo zuten aita, eta Lontxo hori Arantzaztiko Ramonen anaia zen. Ba, izendatu dudan Jose Etxeberria hori Lontxoren semea zen. Mutil haundia eta indar puska bat zuena... Santanderrren hil zen gizarajoa, emaztearekin egun batzuk pasatzera joanda. Ikusten denez, egun batean, bazkalondoan, uretara sartu, atake batek eman eta bertan ziplo geratua izango zen Jose.



Asintxio Artola ugartearra, San Bartolometako jaialdi batean, Amezketan.

Noski, Elorraingo Domingo Artanok ere jasotzen zuen Zelarko harria. Txikixegoa ere bazen hau...

### San Bartolometako harrijasotzeak

Garai batean, zaindari jaietan, egun batean ez bazen bestean, sarritan izan ohi ziren harrijasotzaileak Amezketan. Gerraondoko urteetan eta geroxeago ere harrijasotzaile horiek herrikoak ziren. Kanpokoak ekartzeko ez zen sosik garai haietan, eta herrikoekin konformatu behar...

Atal honetan erakusten ditugun argazkiek egoki asko argitzen digute zeintsu izan ziren plazaratutako batzuk: Jose Maria Garin, Ignazio San Martin, Manuel Aierbe, Asensio Artola... Urte haietan erabiltzen zen harria zortzi arroakoa izaten zen; astunagorik, apenas.

Astunagoak astintzen, izen eta sona gehien izandakoa Ugarteko Jose Migel Artola izan zen, 1961-1962 urteetan. Hamasei arroakoarekin jokatzera, bi bider plazaratu zen Etxeberri edo Etxerri baserrian bizi zen indartsua. Apustu horien berri zabalkiro emango da ondoko atal batean.

Harri handiekin burrukatutako azken harrijasotzaile amezketarra Joseba Zubeldia izan da; hau ere ugartearra. Norbaitek esan digu Albitzuri-aundi famatua ere bizkarrreratu zuela noz bait. Tamalez, ez daukagu hori ziurtatzen zuen agiririk. Pena du Zubeldiak ere.

### **“Albitzuri-aundi” jasotzea zenbaiten amets... betegabea. Ezkutuko ahaleginak.**

Indartsu askoren kapritxoa izan da Albitzuri-aundi harria bizkarrean berdintzea. Zerrenda luzea egin daiteke



*Albitzuri-aundi harria, 1947ko abuztuan egin zen txapelketa egunean. Dagoen argazki zaharrena da hau.*

dagoeneko amets hori bete dutenekin. Badira, ordean, bi-dean geratutakoak ere.

Askok eta askok alde aurretik, plazaratu aurretik probatu nahi izan ohi zuten. Horietakoa bat izan zen, esate baterako, Joxe Mari Zulaika “Paskualtsoro”. Nahikoa poliki heltzen zion harriari, baina ezin berdindu bizkarrean. Hori bai, Eleuterio Tapia zenaren ukitu txiki batekin lortzen zuen jasotzea. Laguntza txiki hura behar bizkarrean berdintzeko...bestela ezin.

Gehiago ere izan ziren probaketan ibilitakoak. Jakin dudanez, Jose Ibar “Urtain” bera ere alde aurretik probatutakoa zen. Ikustez denez, bi bider izan zen Amezketa Albitzuri-aundi harria probatzeko asmoz. Lehenbizikoan harri ikusi eta kontu gehiago jakitera joan ziren Urtain aita eta bere babesleak.

Bigarrenean, zirt-zart egitera joan ziren, hau da, harria probatzeko bideak urratzera. Hala, Urtainen babesle batek diru piska bat agindua izango zion herriko agintari bati, eta honek ezetz eta ezetz, ez ziotela harriari eskua jartzen utziko. Itsusia izango zela harria probatzen uztea. Babeslea berehala ohartu zen, diru gehiago aginduz gero, amore emango zuela agintariak. Eta halaxe izan zen, babesle-manager argiak aurreneko proposamenean egindako kopurua halako bi emango ziola aurreratu eta orduan izan ziren kontuak agintariarentzat. Dirua ere ona kopuru hartan...jendeaurrean esandakoak jan beharra...Azkenean behintzat amore eman zuen delako agintariak.

Urtainek lasaitu ederra hartu du agintariaren baie-tza jaso duenean. Handik aurrera egin beharreko lanak bereak izango dira. Alondegian daude probaketara joandako guztiak, amezketar bakan batzuk zein kanpotarrak, bonbila xaxtar baten argipean. Inor ez esnatzearren, ia ahopean hitz egiten dute guztiek, isilean. Animoak emateko ez da hitz bat bestea baino ozenago egiten. Poliki poliki hurbildu zaio harriari Urtain. Esku bat hemen ezarri, bestea han...Aurreneko heldualdian gerriraino altxa du, aparteko zailtasunik gabe. Isiltasuna izugarria da alondegian. Harriaren joerak ondo aztertu nahirik,



mugimendu guztiak mantso-mantso egin ditu Urtainek. Gerriraino eraman eta...lurrean utzi. Hori egin orduko, arnasa hartu eta, zera esango die bere sozioei:

- Mutilak, hain izen gaiztoko harria laster ikusiko duzue nire bizkarrean.

Esan eta egin. Aurreneko ukitualdian ondo hartu dio neurria harriari eta bigarreanean airoso jaso du bizkarre-  
ra eta han berdindu. Mundu guztiak aitortzen du sena berezia duela Jose Ibarrek harri bihurrien trikimailuak menderatzeko.

Isiltasun handia zegoen Amezketako plazan Zestoa-Aarroakoak etorri zirenean eta itzuli ere, isilgordean itzuli ziren taxira, isil-misilka. Bai, Txikillo inguruan utzi zuten autoa, eta handik oinez joan ziren kontzejuraino, hitz bat bestea baino ozenago egin gabe. Zakurren bat jabetu zen kanpotarren bisitaz, baina bere zaunka oso mottela izan zen.


Jose Ibar “Urtain” bezala, bat baino gehiago izan dira “Albitzuri-aundi” alde zurretik probatu eta gero plaza-ratutako kargajasotzaileak. Agintari guztiak ez dira izan Amezketan ezetza emandakoak.

### Guztien artean harri entzutetsuena

Amezketara ailegatutako jendetzarik handiena Fernandoren oroitzapenak lortu zuen 1924ko uztailaren 13an. Egun hartan Amezketako plazan ikusi ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariak, kazetariak eta euskaltzaleak, bertsozaleak eta bere ateraldizaleak...Fernandoren izenari omen egitera joanda. Amezketak inoiz ezagutu gabeko jendetza izan zen hura. Autobus bakan batzuk, auto mordoska bat, bizikleta zenbait, oinezkoak...festa gogoangarritzat eduki zen luzaro Amezketan. –”Egundo ez da ezagutu eta ez dugu horrelakorik ezagutuko”– esan zuenik izan zen gure herrian.

1947ra jo beharko dugu Fernando Amezketarraren omenaldikoan baino jendetza handiagoa gure herriko

*Harriaren egiturari erreparatu  
gero, aintzakotzat hartu  
beharreko hipotesia da Basarrik  
azaldu zuena.*



plazan “ezagutzeko”. Hogeita hiru urte igaro ziren ospakizun bien artean.

Ez zen jendetza hura meritu handiko pertsonaren bat omentze aldera Amezketara etorri. Alondegian ezkoan luzaroan edukitako harri bat izan zen kirolzaleak Amezketara erakarrarazi zituena. 1947ko kazetak eta ondorengo urteetakoak aztertuz gero, adjetibo sorta polita harri honen gainean: korapilatsu eta bihurri (enrevesada), gutiz ospetsu (legendaria), mitikoa...

“Albitzuri-aundi” esanda ezagutzen zuten komunikabideetan; hori omen zen “Amezketako harria”. Nondik ote zetorkion deitura hura Amezketako harri jakin hari? Amezketan bada “Albitzuri” deitzen zaion bi bizitzako baserri bat, baina ez da paper zaharretan agertzen “haundi” kalifikatiborik. Itxura guztien arabera, harri baldar hori lehenbizikoz jaso zuenarena izango luke bere deitura. Gure iritzira, XIX.mendean jaiotako Jose Maria Zuriarrain Galartza amezketarrari esango zioten “Albitzuri-aundi”.

Gai honetan Basarri bertsolari-kazetariak idatzita koetara maiz jo beharko dugu, puntu asko argitze aldera. Nire aburuz, 1947-1951 urteetan sarritan izan zen gure herrian; batetik, San Bartolome egunez-eta, bertsoetara etorrita. Bada inondik ere aipatu gabe utzi nahi ez dudan puntu bat. 1947ko urtarrilaren 16an udal-gizon berriak –emakume bat bera ez zegoen zerrendan eta– jarri ziren agintean Amezketan, Gipuzkoako gobernadore zibilak horrela erabakirik. Sartu zirenen artean Albitzuriko Jose Maria Zuriarrain Tolosa zegoen, eta nago honek Basarri esandakoak piztu zuela luzaz isil-gordean zegoen harriarekin zerbait egiteko sua. Egingo nuke Basarrik gerora eman zituen informazio asko eta asko Jose Maria

Zuriarrainengaindik jasotakoak direla. Horretan nago. Bistan da erabat maitemindurik geratu zela harri haren gainean esaten ziren kontuekin gure Basarri.

Hori horrela, “Albizuri-aundi” harriarekin egindako saioetan buru-belarri murgildu zen kazetari gisa Basarri. Atal honetarako egoki datorren artikulua bat idatzi zuen 1963an. Uztailaren 24an zabalduko *La Voz de Españak* bere aurreko azalean argazki bat zekarren, eskuin aldean, izenburu honekin *La “Albizuri-aundi”, precintada*. Oholez egindako kutxa bat erakusten du argazkiak, eta bere barnean dago harria. Hitz hauekin aberasten da grafikoa:

*“Albizuri-Aundi” es la famosa piedra de Amézqueta que ningún forzado podía levantarla. El nombre le viene, precisamente del único forzado que logró izarla hace ya más de sesenta años. Después hubo varios intentos fallidos; más tarde, algunas consecuciones. Y para el próximo día 25 se abre una incógnita: el concurso que tendrá lugar en el frontón Anoeta. El ganador recibirá 5.000 pesetas y un trofeo de LA VOZ DE ESPAÑA. (VEA REPORTAJE DE BASARRI EN LA PÁGINA 12)”.*

Irakurleak hamabigarren orrialde horretara jo besterik ez du artikulua egoki eta aberats bat ikusteko:

*“Apuntes de un bersolari*

\*\*\*\*\*

*“Albizuri-Aundi”, la piedra izada por un forzado en Amézqueta*

\*\*\*\*\*

*En posteriores intentos fracasaron diez de nuestros “arrijasotzales”*

*¿Se podrá repetir la proeza, el día 25, en el Frontón de Anoeta?*

*¡Lo que dio que hablar la piedra de Amézqueta!*

*En el pueblo de Inza (Navarra) había una piedra llamada “Bote Arria”. Los naturales de aquel lugar opinaban que no había ser humano con capacidad de levantar al hombro aquella mole deforme.*

*A la sazón en Amézqueta (de esto hace aproximadamente ochenta años) existía un hombre de desconomales fuerzas. Era conocido por “Albizuri-Aundi”.*

*Algunos amigos de “Albizuri-Aundi” frecuentaban mucho el pueblo de Inza. En más de una ocasión pudieron examinar lo que era la piedra en cuestión.*

*Se les antojaba que su amigo “Albizuri-Aundi” podría con ella. Como la piedra solía estar en un lugar público a disposición de cualquiera tuvieron una feliz idea. Una noche salieron de Amézqueta para Inza en compañía de su socio. Cinco horas de caminata tratando por montes y barrancos.*

*“Albizuri-Aundi” se coloca delante de la piedra. Estima llegado el momento de la prueba.*

*Y consigue, sin grandes apuros, levantarla en el primer intento.*

*Y la noche densa y oscura y sus incondicionales compañeros fueron los únicos testigos de la proeza de “Albizuri-Aundi”.*

\*\*\*\*\*

*Al domingo siguiente pensaron trasladarse nuevamente a Inza. Se presentaron en la plaza a la hora crítica en que la mayoría de sus vecinos estaban congregados en espera del toque de campana para cumplir con los sagrados preceptos.*

*“Albizuri-Aundi”, haciendo gestos de cansancio, se sentó sobre la famosa piedra. Sacándose el pañuelo para quitarse el sudor dijo:*

*–Buena ración tiene esta piedra para un hombre.*

*–Alguien más fuerte y despejado que usted se necesitaría para esto –contestaron los de Inza.*

*Calló de momento “Albizuri-Aundi”. Al poco rato les dice:*

*–Pues si ustedes me quisieran conceder un plazo de quince días yo les jugaría una onza de oro a que la levanto.*

*La proposición de “Albizuri-Aundi” fue aceptada con gran contento por los inzatarras.*

\*\*\*\*\*

*Había que tomar toda clase de precauciones.*

*Guardaron la piedra en un desván.*

*Llegó el día de la prueba. Sacaron la piedra a la plaza, depositándola en un charco de agua de bastante profundidad.*



Albizuriko atari hau ondo ezagutu behar zuen Amezketako harria estreinekoz jaso zuen Jose Maria Zuriarrainek.

*Los amigos de “Albizuri-Aundi” hicieron los posibles por secarla.*

*No lo debieron conseguir plenamente. En el primer intento se le escurrió de las manos a nuestro forzudo. El griterío y las risotadas que estallaron en la plaza de Inza son indescriptibles.*

*–Reir y gritar todo lo que queráis –exclamó “Albizuri-Aundi” – pero esta mole no quedará sin que yo la levante.*

*En efecto, en el segundo intento, sin mayores dificultades, “Albizuri-Aundi” conseguía nivelarla en su hombro.*

*Las risas y el griterío se trocaron en silencio sepulcral. La piedra de Inza fue adquirida en propiedad por la única persona que la podía levantar en aquel momento. He aquí la razón de llamarse “Albizuri-Aundi” la piedra de Amézqueta”.*

Bera idatzietan eskubete azalpen ematen digu Basarrik Amezketako harri entzutetsuaz. Lehendabizikoa 1947koa da, eta bere ustez, Intzan egindako apustua jokatu zela baziren hirurogeita hamar bat urte. Hori horrela, 1877 aldera jo beharko genuke. Hori egia izatera, Zuriarrainek 44 urte izango zituen harria jaso zuenean. Bigarren azalpena 1963koa da. Urte hartan larogei bat urte-edo betetzen zirela diosku. Bide horretatik joanez gero, 1882 aldera

egindakoa izan likete Zuriarrainen probaketa Intzan. Berrogeita bederatzi bat urte izango zituen orduan. Basarriren juzkua alde-aldera hartzen badugu, 1877tik 1882ra doazen urteetan kokatu beharko genuke Intzako apustua. Beraz, urte haietan Amezketara ekarritako harri izango genuke “Albizuri-aundi” hori.

Badago, nire ustez, argibide interesgarri gehiago ere Basarriren idatzian. Diosku, hitzez hitz: “Bazen Nafarroako Intza herrian **Bote-Arria** esaten ziotena”. Hori horrela izatea, Albizuri-aundi harriak pilota munduarekin lotura baduela onartu beharko genuke. Hipotesietako bat izan daiteke, eta ez oso desbideratua.

Aralarko artzainen artean oso ezaguna zen esaera hau garai batean: *Gaintze t’Intze, infernuko atarien giltze*. Amezketatik joandako zahar eta gazteek Intzan ez zuten infernuko giltzarik aurkitu, gerora izen haundiko harria izango zen bat baizik.

### Jose Maria Zuriarrain Galartza edota, nahiago bada, “Albizuri-aundi” indartsua

Orain arte Jose Mari Zuriarrainez esandakoak osa ditzagun xehetasun berriz. 1833an jaio zen. Zuriarrain-Galartza sendian, senide zaharragoak bazituen: Juakina Luisa (1829) eta Ramona Antonia (1831). Gazteagoak izango zirenak: Josefa Antonia (1835), Maria Josefa (1837) eta Klara Antonia (1846).

Ongi pentsatu zituen gauzak ezkondu aurretik. Izan ere, berrogeita hiru urterekin eman baitzion betiko baiezta Rafaela Altuna Olasori, hogeita bost urteko neskatila gazteari. Sei seme-alaba izan zituzten: Jose Ignazio (1877), Josefa Joakina (1879), Bartolome (1881), Karlos (1883), Klara Antonia (1887) eta Jose Joakin (1890).

1947an Amezketako udal-taldean zinegotzi ardurua hartu eta seguruenera Basarri kontu asko esandako Jose Maria Zuriarrain hura, Jose Ignazio Zuriarrain eta Joana Tolosaren semea zen, 1911ko uztailaren 2an Albizuri baserrian jaiotakoa.





## Hiru gizon “Albitzuri-aundi” harriarekin burrukan 1947an

“Albitzuri-aundi” zela eta, kirolzale askorentzat Amezketako herria eta harri hau hizpide nagusi bihurtu ziren. Bai, 1947ko udatik 1951ko udazkenara, alondegia hainbat urte isilean edukitako harriak ikaragarritzko sona eman zion Amezketari. Milaka zale inguratu zen harri “demonio” hura nolakoa ote zen ikustera. Egia esan, kazetariak asko lagundu zuten horretan, batez ere Basarri bertsolariak *Mi atalaya montañera* zutabean idatzi zituenak zirela medio. Ez genuke ahaztu behar, gainera, Fernando Artola “Bordari” hondarrabiarraz ere. Basarrik *La Voz de España* egunkarian idazten zuen bezala, Bordarik *Diario Vascon* zeukan bere txokoa: *Desde mi borda*. Garai hartan Basarri eta Bordari latz saiatu ziren “Albitzuri-aundi” harriaren sona zabaltzen eta bide batez, Amezketa herriarena ere barreiatzen. Bestela uste eta iruditu arren, asko zor diegu bati zein besteari. Goresmen eta ohore guztiak zor zaizkie.

### 1947an, Atano III Amezketan eta lehenbizikoz Albitzuri-aundi harria dantzan

1947ko urtarrilean zinegotzi berriak udaletxean sartu izanak arnasberritua eman zion Amezketako herriari. Festetan ere antzeman zen hori. Batetik, Atano III pilotari handia bikote baten aurka jokatzera etorri zen. Ospakizun bikaina hain pilotazalea zen herri batentzako. Nolanahi ere, urte hartan, 1947an, informazioaren aldetik ospakizunik oparoena “Albitzuri-aundi” harrizarra izan zen, zalantza handirik gabe.

Oso kontu gutxi dago 1947ko abuztuaren 31an egindako lehen saio hartaz. Ia ez da aipatu ere egiten egunkarietan. Igande hartako ospakizunekin bukaera eman

nahi zitzaien San Bartolome jaiei. Orain ez bezala, fama handikoa zen *Errepetizio Jaia* deitzen zitzaion hura. Festak ondo joan ez zitzaizkionak poz hura edukitzen zuen, hots, Errepetizio Jaiarekin zorigaitz guztiak kitatuko zituelako eta aho-gozoarekin geratuko zela azkenean.

Kontua da garai hartan indartsu sonako hiru atleta aukeratu zituztela Amezketako agintariak “Albitzuri-aundi” harriarekin lehiatzeko. Eta ospakizuna behar bezala egin nahi zuten Gipuzkoako Atletismo Federazioa jo zuten agiri ofizial bat egin zezatela eskatuz. Jaialdia burutu eta federazio-ordezkariek utzitako ohar labur horretan hiru izen propio agertzen dira: Jabier Etxaniz elgoibar-andoaindarra, Ignazio Arrigorriaga Abalabide hernaniarra eta Ramon Agirre bedaioarra. Bakoitzari buruz bada zer kontatua.

### Jabier Etxaniz

Bai, protagonistetako bat Jabier Etxaniz indartsua izan zen 1947ko abuztuaren 31 hartan. Elgoibartarra zen sortzez, baina gazterik Andoainen bizitzen jarria. 1947 aldera sona dezentea zeukan Etxanizek, eta hedabideetan ere halakoxe izena ematen zioten: Gipuzkoako indartsua. Hori zen zabalduena, baina “Santson moderno” ere esaten zioten egunkari-aldizkarietan. Paulino Uzkudun, Jabier Otxoa burrukalaria eta abar aipatzen ziren Etxanizi buruzko kroniketan. Gizaseme handia zen soinez, bere sudur motzarekin...

Herriz herri, hiriz hiri ibili ohi zen erakustaldiak eginez. Espektakulu-gizona zen zeharo. Amezketako



Javier Etxaniz. 1947ko San Bartolometan.



Ignazio Arrigorriaga Abalabide hernaniarraren ahalegina. Mahaian, alkandora zuriz, Jabier Etxaniz. 1947-08-31

agintariak bazuten seguruenera erakustaldiz erakustaldi ibiltzen zen indartsu honen berri, eta horregatik deitu zuten Albitzuri-aundi harriarekin burrukatzera.

### Ignazio Arrigorriaga Abalabide hernaniarra

Hernaniar honek ez zuen Jabier Etxanizen izenik, nahiz eta bi apustu egindakoa izan. 1944ko udaberri-udan bi trabesa egin zituen, baina 100 kiloko zilindroarekin. Txikia da hori "Albitzuri-aundi" harriaren aldean. Ez zen inondik ere espektakulu-gizona, bestalde. 1947ko abuztuaren azken egunean Amezketara etorri zenean ez zen batere ezaguna indartsu hau. Jendeak esaten zuenari sinestera, indar biziko kargajasotzailea zen. Amezketara etorri zen garai hartarako bazebilen kargajasotze saioetan eta gerora ere ibili zen. Amezketako saioan zorte handirik izan ez zuen bezala, hurrengoetan ere ez zuen ganorazko markarik lortu.



Litekeena da argazki honetako kargajasotzailea ere Ignazio Arrigorriaga izatea. 1947.



## Ramon Agirrek jaso ote zuen 1947ko abuztuaren 31an "Albitzuri-aundi" harria?

Bai, bera izan zen XX.mendean eta guk dakigularik aurren-aurrenekoa "Albitzuri-aundi" harria jasotzen... sorbaldaraino. Arestian aurreratu bezala, garai hartan, 1947 aldera, Gipuzkoako Atletismoko Federazioaren kontrolpean egin ohi ziren apustuak, eta erakunde honek baliogabe utzi zuen Ramon Agirrek lortutako altxaldia. José Anabitarte epaileak eta Jesús Rodrigo kronometratzaileak akta hau utzi ziguten:

*"La piedra señalada para el levantamiento será la llamada Albizuri-aundi, de 167 kilos. Esta piedra es llamada así por haber levantado hace 63 años por alguno del caserío de dicho nombre. El tiempo de las tandas será de quince minutos. Será condición indispensable levantarla de frente. Caso de que ningún participante lo levantara de frente, el Juez-Árbitro podrá autorizar que se levantara de cualquier forma.*

### Resultado

*Javier Echaniz intentó de varias formas sin conseguirlo en el tiempo determinado.*

*En segundo lugar actuó Ignacio Arrigorriaga de Hernani. Después de varios intentos abandonó, sin que pudiera levantarla.*

*Después de que ninguno de ellos lo levantó en las condiciones primeramente exigidas, el Juez Árbitro, de acuerdo con el Exmo. Ayuntamiento, que actuaba como organizador, autorizó el libre levantamiento, bien fuera por delante o por detrás.*

*Ramon Aguirre, del caserío "Saoberri", barrio de Bedayo (Tolosa), la levanta agarrándola por detrás, y pasándola por la cadera derecha a la espalda, para luego agachándose dejar deslizar hasta posarla en las espaldas junto al codo. Desde luego no posó en hombro alguno.*

*Al posar en la espalda había transcurrido un minuto y 45 segundos".*

Nahiz eta oso goitxoraino harria jaso, Federaziokoek ez zioten baliozkotzat eman altxaldi hura Ramon Agirrerri. Amezketako jaialdi hark piztutako suak luze iraun zuen, nola Amezketan bertan hala Gipuzkoa osoan.

## Aktak argitzen digun puntu pare

1947ko lehen lehiaketa hura bakarra izango da hamabost minutuan zirt-zart egin beharrekoa. Gerozkoan hamar minutuko tanda izan dute jaso nahi izan dutenek.

Oso deigarria egiten zait, bestalde, zein irmo eta zer nolako segurtasunez adierazten duen aktak xehetasun hau: 63 urte pasatu zirela azkenekoz jaso zenetik. Hori horrela baldin bazen, 1884ko urtean bizkarreratu zuen Jose Maria Zuriarrainek, Intzan. Puntu hau egiazkoa baldin bada eta zuzena, Albitzuriko semeak 51 urte behar zituen izan.

Azpimarratu beharreko puntua da bigarren hau ere: egun hartan tentsioa eta sesioa izan zirela Amezketako herrian. Bedaioarrak nahita nahiez atzetik jaso nahi eta...epaileak ez onartzen hasiera batean behinik behin.



Ramon Agirre bedaioarra Albitzuri harriarekin, 1947ko San Bartolometan.



## ACTA

Del Concurso de levantamiento de piedra, celebrado en la Plaza Pública  
de AMEZKETA, el día 31 de Agosto de 1947,  
entre los participantes que al pie se designan.

### DATOS

La piedra señalada para el levantamiento será la llamada Albizuri-aundi, de 167 kilos. Esta piedra es llamada así por haber levantado hace 63 años por alguno del caserío de dicho nombre. El tiempo de las tandas será de 15 minutos. Será condición indispensable levantarla de frente. Caso de que ningún participante lo levantara de frente, el Juez Arbitro podrá autorizar que se levantara de cualquier forma.

### RESULTADO

Javier Echaniz intentó de varias formas sin conseguirlo en el tiempo determinado.  
En segundo lugar actuó Ignacio Arriaga de Hernani. Después de varios intentos abandonó, sin que pudiera levantarla.

Después de que ninguno de ellos la levantó en las condiciones primeramente exigidas, El Juez Arbitro, de acuerdo con el Excmo Ayuntamiento, que actuaba como organizador, autorizó el libre levantamiento, bien fuera por delante o por detrás.

Ramón Aguirre del caserío Saoberri barrio de Edayo-Tolosa, lo levantó agarrándolo por detrás y pasándolo por la cadera derecha a la espalda, para luego agachándose dejar deslizar hasta posarlo en las espaldas junto al cogate. Desde luego no posó en hombro alguno.

Al posar en la espalda habían transcurrido 1 minuto y 45 segundos.

El Juez-Arbitro,

Jose Anabitarte

Los Cronometradores,

Jesús Rodrigo

Condiciones atmosféricas: buenas, con sol espléndido.

Hauxe da Federazioan artxibatuta dagoen agiria.

Ramon Agirrek zergatik ez zuen bizkarrean berdindu? Gauza ote zen? Gaur egun ez gaude galdera hau erantzuteko moduan, baina hamasei arroakoa jasotzeko adina indar bazuen Sarobe-berriko mutilak...

### Ramon Agirre Amundarain bedaioraren kirol ibilbidea. Amerikara bidean.

Zer esan dezakegu Ramon Agirrez? Honena ere ibilbide laburra izan zen kargajasotze kontuetan. *Sarobe berri*, *Saoberri* edo *Saaberry* baserriko semea zen, 1922an sortua Ramon Agirre. Bere garaian sona dexente izan zuen Ramonek.

Ez zen ez apustu askotan plazaratutako indartsua izan; bizpauru baino ez: pare bat kargajasotzen eta beste bat, aizkoran. Egia esan, ez zioten poz handirik eman jokatutako apustuek. Ez, Amezketan "Albitzuri-aundi" harriarekin egindakoak eta ez Errekartetxorekin 1948ko abuztuaren 22an, Tolosan jokatutakoak ere. Batez ere honek egundoko jipoia eman zion, kupidarik gabekoa, eta handik aurrera apenas gehigo plazaratu zen.

1950eko irailaren 21ean Esperanza Soledad Andruina Dominguez amezketarrarekin ezkondu eta Ameriketara abiatu zen hurrengo udaberrian, apirilaren 21ean, Barcelonatik, "Cabo de Hornos" deitu itsasontzian. 1951ko maiatzaren 12an ailegatu ziren Buenos Aires hirira Ramon eta Esperantza. Seme bakarra izan zuten. Gehienentsuentzat bezala, gogorra egin zitzaizen bizimodu berria hasiera. Gero, ostalaritzatik bizi izan ziren luzaroan.

Hirurogeita hamasei urterekin hil zen Ramon 1998an, eta, Soledad Esperanza, berriz, 2012ko abenduan, laurogeita birekin.



Bedaioko Ramon Agirrek Albitzuriko harria 1947an jaso zueneko.



Ramon Agirre eta Esperantza Andruina, euren semearekin Argentinan.







Ramon Agirrek eta enparau guztiek Amezketan piztutako sua ez zen gure herriko lurretan gelditu; berehala zabaldu zen bazter guztierara, Euskal Herri guztira. Bestela esan, 1947ko abuztuaren 31an egindako lehen txapelketa hartan ikusi behar dugu gerora “Albitzuri-aundi” harriarekin egindako norgehiagoka guztien iturburua.

### “Basarrik” piztu zuen sua...onerako

Amezketan gertatu zenaren berri bazuen, gorago ikusi den bezala, Basarrik. Ikuskizun polita antolatu zitekeela pentsatzen zuen kazetari-bertsolariak. Bizpairu aste nahikoa izan zituen albiste-errota lanean jartzeko. Dena den, oso informazio aberatsa da udalak 1947ko irailaren 28an egindako plenoaz jasotakoa:

*“A continuación expuso la Presidencia que en la semana que había terminado fue llamado al teléfono el Sr. Secretario de este Ayuntamiento por don Ignacio Eizmendi “Basarri”, el cual debió de manifestarle la idea de realizar un gran concurso de levantamiento de piedra denominada “Albitzuri-aundi” y que él pondría de su parte todo lo que le era posible de hacer y que en ese sentido venía recibiendo diversas cartas, todo ello si le parecía bien al Ayuntamiento. Con esta fecha ha aparecido en dicho periódico un artículo de “Basarri” en los términos de la conferencia telefónica antes expuesta y por lo tanto añadió la Presidencia que creía conveniente estudiar el caso por parte del Ayuntamiento e invitó a todos los señores concejales expusieran su parecer sobre el particular.*

*En su vista hicieron uso todos los sres. concejales y por unanimidad se acordó nombrar una comisión compuesta por la presidencia, del concejal sr. Arsuaga (Gregorio, guk) y el escribiente de este Ayuntamiento don Francisco Ordozgoiti para que en unión de don Ignacio Eizmendi “Basarri” se reunieran en “La Voz de España” de San Sebastián y hablar de común acuerdo, cómo y en qué condiciones se podía llevar a cabo el concurso de levantamiento de la piedra denominada “Albitzuri-aundi”.*

Erabaki eta...egin. Bai, astelehen arratsaldean Amezketako enbaxada Donostiara abiatu zen, eta hurrengo egunean, asteartez egindako bilerak akta hau utzi zigun:

*“Acto seguido expuso la Presidencia que como se decía en la convocatoria, el objeto de la reunión obedecía para dar cuenta de la gestión realizada por la Comisión que estuvo en San Sebastián para tratar del concurso de levantamiento de piedra denominada “Albitzuri-aundi” de acuerdo con don Ignacio Eizmendi “Basarri” y el director del periódico “La Voz de España”.*

*La Comisión nombrada estuvo pues ayer en San Sebastián, a donde acudió también el referido “Basarri” y en unión se trasladaron a la redacción del periódico “La Voz de España” en donde fueron recibidos con toda amabilidad por el Director de dicho periódico y después de un cambio de impresiones sobre el asunto, el Director se ofreció a patrocinar el gran concurso de levantamiento de piedra de “Albitzuri-aundi” y que el Ayuntamiento concretará los premios que iban a ser para dicho concurso con arreglo al programa y condiciones que iban de acuerdo.*

*En su vista el Ayuntamiento acordó señalar los siguientes premios:*

*Primer premio-. 1.500 pesetas; segundo premio, 1.000 pesetas. Tercer premio, 750 pesetas, cuarto premio, 500 pesetas y quinto premio, 250 pesetas.*

*Como quiera que el concurso que se iba a realizar tendría mucho trabajo para el cierre de la plaza y el tablado que se iba a colocar con otras muchas más cosas que se presentarían de improviso, el Ayuntamiento acordó facultarle a la Presidencia para que llevara a cabo cuanto estimaba y creía conveniente hasta su total terminación”.*

Egunak hurbildu ahala, antolatzaileek geroz eta albiste gehiago ematen zuten 1947ko urriaren 19an Amezketan egitekoa zen txapelketaz. Urriaren 17an, ostirala, aipamen hau eskaini zion *La Voz de España* egunkariak

**“HAY DIEZ INSCRITOS PARA EL CONCURSO DE AMEZQUETA**

*Caravanas de aficionados de Vizcaya y Guipúzcoa*

*Lo que menos pueda pensarse es que esto de la piedra de Amézqueta tuviera tanta resonancia como la W.M., el juego de pares, el pentagonal, el rombo... y todos sistemas geométricos con los que ahora, al parecer, se gana un partido de fútbol.*

*Pues bien, amigos, los forzudos que el domingo tomaran parte en el concurso de levantamiento de piedra, organizado con el patrocinio de LA VOZ DE ESPAÑA, por el Ayuntamiento de la citada villa, también vienen de ensayar estos días sus “tácticas”. Pero aquí no hay más que una: la fuerza, la potencia... como ustedes le quieran llamar. Eso es lo que no tendrá fallarles a los forzudos, porque si no...*

*Pero en Guipúzcoa hay hombres decididos y bien entrenados para estas pruebas rurales. A la vista tengo las diez inscripciones que obran en poder del “ruiseñor” Basarri. Los que saben de estas cosas de la fuerza en nuestra*

*provincia, se sorprenderán de que un bardo esté metido y dirija estas pugnadas de los hércules. Creo que también le sucedía a Homero en la antigua Grecia. ¿Y es que no tiene que hacer su esfuerzo gutural el amigo Basarri para cantar sus versos?*

*Pues bien Basarri irá a Amézqueta, y al que no pueda con la fenomenal piedra le ayudará con sus estrofas cantadas. A Javier Echániz –creo que no necesitará...–, Manuel Arasquistain, “Chomin”, Ignacio Oliden (el remero de Orio), Ibarbia, Andremendi, Iraeta... ¡y los que caerán en el día de hoy! Porque recordamos a todos que hoy, viernes, se cierra, a la noche, el plazo de inscripción.*

*¿Qué cuántos autobuses van a ir a Amézqueta? Eso lo sabremos el domingo. Pero no tenemos dedos en nuestras manos para contarlos. Porque pasan de doce, seguros. Con la interesante noticia de que, asimismo, de tierras de Vizcaya llegarán a Amézqueta dos unidades completamente abarrotadas de aficionados.*

*Eso se lo digo yo a ustedes muy seriamente. Y yo me estoy calzando las botas de monte para ir a pie a la simpática villa guipuzcoana. Que creo será el mejor medio de locomoción.– T.”.*

Indartsuak plazaratzeko eguna arrimatu ahala, giroa latz ari zen berotzen. Ez zegoen beste konturik kirolzaileen artean. Jokatzeko eguna ailegatu eta *La Voz de España* berebiziko publizitatea egin zion txapelketari. Ez dezagun ahaztu buru-belarri sartua zela egunkaria txapelketaren antolamenduan. Urriaren 19ko egunkariak, azalean, Ergone auzunea erakutsiz argazkia polita eskaini zien bere irakurleei; gero, barnean, kirol orrialdeetan, argazki-eta guzti, idatzi zabala. Argazki horretan Ramon Agirre ikusten da Albitzuri-aundi harria jasotzen. Nahikoa garbi esaten du argazki oinak zer pentsatzen zuten zenbaitek, bedaioarrak egindako ahaleginaz. Honela esaten da argazkiaren barrenean, hitzez hitz:

*“¿Se ha levantado o no la piedra de “Albitzuri-aundi”? Aquí tenemos al tolosano, del barrio de Bedayo, Ramón*

*Aguirre, para lo que ustedes quieran mandar. Eso lo contestarán hoy los forzudos que participan en el concurso de Amézqueta”.*

Argazki hori baino balio handiagokoa da Basarri-ri egin zioten elkarrizketa urriaren 19ko *La Voz de España* hartan. Interesgarritzat jotzen dudalako berrituko da hemen bere osotasunean. Ez dezagun ahaztu apustu egunean bertan zabaldutakoa dela. Puntu asko argitzen du. Nahikoa luzea da baina osorik aldatuko dut hona, eta horrela egunkarira joateko lana aurreratuko diot irakurleari:

*“Basarri” es el auténtico promotor del original concurso de levantamiento de piedra que se celebra hoy en Amézqueta. Tiene sello organizador de su Ayuntamiento y lo patrocina LA VOZ DE ESPAÑA. Pero es “Basarri” quien lo lleva todo. Menos la piedra.*

*Se lo he mencionado, jugando a la ironía y ésta fue su respuesta:*

*–No pesará mucho más que el trabajo que voy desarrollando...*

*¿Ponemos un límite?*

*–El real. Ciento setenta kilos “da” el “morrosko” (¿) de Albizuri-aundi. Así se llama. Su nombre sirve de homenaje perenne –Basarri domina muy bien la lengua de Cervantes– a un gran atleta de Amézqueta. Es del siglo pasado, Jose María Zuriarrain Galarza. Protagonista de una curiosa historia.*

*–Aunque la haya contado alguna vez, ¿le importaría contarla?*

*–Escuche usted. En un pintoresco villorrio navarro –Inza– existía una gran piedra que, según los vecinos, no había mortal capaz de levantarla. Se enteraron ciertos amigos de “Albixuri-aundi” y opinaron que éste podía ser una excepción. Y de madrugada, con cinco horas de camino, llegaron al lugar, probando fuerzas. Efectivamente, podía. Al día siguiente, entre las bur-las de los aldeanos locales, afirmó que efectuaría el*

*levantamiento. Se le rieron. Apostó una onza de oro...y volvió con dos.*

*–Bella anécdota. ¿Y le parece que no alzarán la de Amézqueta los “arrijasotzales” que acudan al concurso?*

*–Allá veremos. No será fácil. De más peso se habrán levantado pero la “Albizuri” no tiene asideros Mide unos sesenta y cinco centímetros de longitud por cuarenta y dos de anchura. Su aspecto es el de un saco.*

*–¿Aspirantes a los premios?*

*–¡Eh, buenos los aspirantes pero los premios también. 1000 pesetas al primero. Javier Echániz pretendía entregar mil pesetas de su bolsillo si fracasaba en el intento y cobrar dos mil en caso de triunfar. No se trata de desafíos. Es en buen sentido, un certamen. El que la levante...*

*–¿Y si levantan varios?*

*–Cada uno tiene un plazo de diez minutos. Es un vencimiento prudencial. Quien no lo consiguiera entonces, tampoco lo lograría después. Y como el jurado, muy completo, comprende cronometradores, se otorgaría la victoria al que realizase la hazaña en menos tiempo.*

*–Muy bien ordenado. Ahora corresponde conocer a los participantes...*

*–Apunte por favor. Es una lista de categoría: Domingo Cenarruzabeitia (el popular “Chomin”); Justo Susaeta (“carguero” de la Alhóndiga); Manuel Araquistain “Ciaran-zar”; Julián Goitiandia y Juan Uriarte, de Eibar; Javier Echániz, de Zumárraga; Ignacio Oliden, de Orio...*

*–¡Qué casualidad! En Orio hay un remero que...*

*–Es el mismo. Un “morrosko” que vale para todo. Sigo. Eulogio Ibarbia, de Hernialde; José Manuel Iruretagoyena, de Azcoitia; Manuel Orbegozo (“Belaeché”), de Irún...*

*–¿Cuál cree que ganará?*

*–Será fuerte la lucha. Muy fuerte. Cuentan que Susaeta está... ¿cómo es?, eso, en forma. Y de Echániz ya se sabrá algo. Pero “Chomin”, veterano y todo... Y Susaeta...*





1



2

- 1\_ Apusturako aukera onak izan ziren arratsalde hartan.
- 2\_ Zozketa egitera doaz.
- 3\_ Albizuri-haundi jaso gabe geratu zen egunean bisitari asko izan zen Amezketan.
- 4\_ Kanpotarrak hartzeko prestatu zen aparkalekua.
- 5\_ Amezketak ez du horrelako jendetzarik egundo. Milaka pertsona plazan.
- 6\_ Izugarritzko jendetza bildu zen Amezketako plazan.



3



4



5



6



7\_ Agintariak eta bisitariak.

8\_ Oholza prestatu zuten kargajasotzaileen jarduna hobeto ikusi ahal izateko.

9\_ Albitzuri-aundi harriarekin indarrak neurtzeko Amezketara hurbildutakoak. - 1947

10\_ Jende asko sartu zen plazara ordainduta, baina bestelako bakan batzuk ere izan ziren.

11\_ Autoz gainezka bazter guztiak Amezketan egun hartan.

12\_ Izugarrizko ikus-mina eragin zuen lehiaketak.



7



8



9



10



11



12





1



2



3



4



5

- 1\_Harrijasotzailea ahaleginean.
- 2\_Txomin bizkaitarra izan ditekete hau.
- 3\_Harrijasotzaile honek oso ondo hasi zuen bere lana.
- 4\_Usuola azkoitiarra.
- 5\_Ezinaren seinalea.Usuola.
- 6\_Honek ere jaso nahiko zuen, baina...
- 7\_Zertan ari ote zen pentsatzen...
- 8\_Hortxe-hortxe ibili zen, baina...







Hay apuestas y extraordinario entusiasmo. En Amézqueta no cabremos todos los que pensamos ir.

–Querido “Basarri”, no me sea usted de Andújar.

–¿Por exagerado? Pues XXX el Evangelio. El Ayuntamiento ha tenido que pedir al público que se desplace que comunique anticipadamente, si va a comer en los restaurantes de la población. Nos reuniremos miles y miles de personas. No exclusivamente de Guipúzcoa. Las provincias limítrofes darán contingente de espectadores. En particular, Vizcaya. Han montando varios servicios de autobuses.

–En su experiencia de animador de estos concursos, ¿opina que los forzudos de antes eran más potentes que los de hoy?

–Atrevida es la pregunta. Y peor contestarla. Yo sí le confesaré que Arteondo, el de Deva, era un fenómeno. Como el motrikuarra “Aritza”. Y Unzuola XXX de Azcoitia. Ocurre que en épocas anteriores no se daban “tantos vuelos” a estas cosas. Había apuestas, sí, pero era como una distracción.

–¿No se apuesta para Amézqueta?

–En las distintas comarcas poseen sus favoritos. Y estos días se comenta y se discute con ardor. Lo he comprobado en persona. Es un formidable acontecimiento el que se organiza. Por mucho que yo hubiera soñado en el éxito –yo estaba seguro de él– no suponía que llegara a tal altura.

–Una parte muy principal de este éxito, será usted...

–¡Mía! No. De todos. Del Ayuntamiento de Amézqueta y de LA VOZ DE ESPAÑA sobre todo, que presta su valiosa cooperación. Tenemos que defender el tipismo de nuestros usos ancestrales.

–¿Oiremos sus versos?

–Muy ocupado estaré. Pero quizá...

“Basarri” no se podrá negar. Para obligarle –preludio de la ovación– preparamos una caravana en el periódico. Nuestro director es aragonés. Y con la venia del señor Sagastume –alcalde de la ilustre villa que se cobija en el “Txindoki”– se ha propuesto comer hoy en Amézqueta.

Naturalmente, “no le dejaremos” ir solo...

OYANEDER”.

## Amezketara jendea galanki etorri zen eguna

Hurrengo asteartean, urriak 21 egun, argazki pare batekin, berriro ere Amezketari buruzko aipamen oparoa *La Voz de España* bere lehen orrialdean, eta barnean, idatzi luze bat ospakizunaren gainean eta honen osagarri, Basarriren iritzia, bost argazki bikainez aberasturik. Dena den, idatzietan dago egiazko interesa. Murgil gaitetzen lehenbizikoan, izenburutik hasita:

“EXTRAORDINARIA ANIMACION EN EL CONCURSO DE LEVANTAMIENTO DE PIEDRA EN AMEZQUETA

\*\*\*\*\*

Ninguno de los forzudos consiguió levantar la “Albizuri-Aundi” hasta el hombro

No sé quién me dijo hace unos días, hablando ya de la famosa piedra “Albizuri-Aundi”, algo de una leyenda que habla de serpientes y brujas.

–“Dicen que las brujas la arrancaron del sitio que el macho cabrío ocupaba en su aquelarres...

–...Tiene algo así como una maldición y le apuesto si a quince a que nadie repite la hazaña de Albizuri-Aundi”.

Esto me dijeron y prometí asistir a la prueba. Y como a mí, el embrujo de la piedra de Amézqueta arrastró a millares de apasionados espectadores de la región vasconavarra a presenciar el esfuerzo heroico de diez hombres que en el bello pueblo amezquetarra habían de intentar descifrar el enigma colocando sobre sus hombros los 167 kilos del resbaladizo pedrusco.

Amézqueta gurrará por mucho tiempo fresco en su historia el recuerdo de la jornada del 19 de octubre de 1947 y el Concurso en que, organizado por el Ayuntamiento de Amézqueta bajo la vara del señor Sagastume y patrocinio de LA VOZ DE ESPAÑA, diez forzudos fracasaron en el intento de repetir la proeza.

El jurado lo integran representantes de la Federación Guipuzcoana de Atletismo, de LA VOZ DE ESPAÑA, el

alcalde de Amézqueta y un concejal, nieto del famoso Albizuri el Grande.

Ocupó la presidencia del Jurado de honor el director de nuestro periódico, señor Acosta.

Una caravana interminable de camiones, autobuses, turismos y bicicletas cubrió durante varias horas la carretera camino de Amézqueta, atraídos por el acontecimiento.

La organización fue perfecta. El entusiasmo creciente, cobra calor con la presencia ante el Jurado de los diez hombrachones. Los pronósticos encierran los más apasionados vaticinios. Favorito de la mayoría: Usaola, el forzudo azcoitiarra.

La prueba comienza a las cuatro de la tarde. La gente, arracimada en árboles y balcones, colgada de escaleras y postes, espera el momento de la competición. El día contribuye al mayor realce de la jornada. Por fin, la suerte señala el orden de los contendientes:

Primero.—Uriarte, después de conseguir colocar la piedra en el pecho, desiste a los 3 minutos y 30 segundos.

Segundo.—Araquistain, sin esforzarse gran cosa, desiste al minuto y 50 segundos.

Tercero.—Susoaeta intenta en vano alzar la piedra, sin lograr pasarla a las rodillas. Ceja a los dos minutos y diez segundos.

Cuarto.—Usuola. A este forzudo azcoitiano los pronósticos le son favorables. Consigue llegar casi al límite de lo establecido, pero desiste al tercer intento, después de 5 minutos y 56 segundos.

Quinto.—Orbegozo. El morrosco irundarra casi alcanza la altura del hombro al segundo intento, pero al tercero desiste, después de 8 minutos y 7 segundos.

Sexto.—Chomin. Invierte 9 minutos y 32 segundos en sus intentos, sin conseguir su propósito.

Séptimo.—Oliden. El oriotarra logra un cerrado aplauso al colocar la piedra sobre el pecho y cerca del hombro en el primer intento. Al tercero ser acerca al hombro también, pero desiste a los 7 minutos y 15 segundos.

Octavo.—Ibarbia. Sin lograr aupar hasta el pecho la “alubia”, desiste a los 2 minutos y 47 segundos.

Noveno.—Goitiandia. Casi logra llegar al hombro al primer intento. Desiste a los 3 minutos y 34 segundos.

Décimo.—Echaniz. Muchos y encontrados pronósticos se cambiaron en torno a su trabajo. Sin embargo, tras intentar varias veces la consecución del triunfo y acercarse en dos de sus intentos, desiste a los 7 minutos y 21 segundos.

Cada nuevo esfuerzo arrastra un nuevo pronóstico y una desilusión en los grupos afectos al forzudo de turno.

“Basarri”, alma de la prueba y miembro del Jurado, halla en cada momento la frase aguda que dé mayor aliciente al espectáculo y hace sonreír al público. ¡Qué bien querido es de todos el popular bersolari! Y ¡qué bien ganado tiene, una vez más, un elogio sincero, al que unimos el nuestro, por su labor en Amézqueta y sobre todo, en nuestras columnas!

Al descender Echániz, a quien la suerte deparó el último lugar en el Concurso del tablado, tras sus tentativas inútiles quedóse en pie el enigma. ¿No hay quien se atreva con la piedra de Amézqueta?

En el Ayuntamiento de Amézqueta está la copa que LA VOZ DE ESPAÑA regalaba para quien, en las mismas condiciones fijadas para la proeza de anteayer, consiga repetir la proeza de Albizuri-aundi, y deshacer el embrujo del singular pedrusco.

Diez hombres lo intentaron el 19 de octubre de 1947. No coronó el éxito sus esfuerzos. Unos más que otros, se acercaron casi todos al límite fijado. Desde el que invirtió ocho de los diez minutos establecidos, en tanteos y caricias, hasta el que desde el intento inicial se subía la piedra al pecho, pasando por el que desde el primer momento desistió de esfuerzos vanos; todos han contribuido a que la pregunta quede en pie: ¿Quién borrará la marca de Albizuri-aundi? BASO JAUN”.

Orrialde berean, aurreko informazioaren osagarri, Basarrik bere iritzia eman zuen. Gogoeta jaso eta hitz ederrez borobildu zuen idatzia:

“Gente por doquier, animación insospechada, éxito inenarrable...”

*No sabemos cómo agradecer a la afición su comportamiento. ¡Eso es responder! ¿Qué diremos de la organización? Que es increíble que en un pueblo como Amézqueta se puedan hacer las cosas tan a la maravilla. Les felicitamos cordialmente, empezando desde el infatigable alcalde hasta el último miembro del Ayuntamiento, incluyendo al asesor deportivo.*

*Muchos arguyen en vista del resultado: está visto que vamos en decadencia; lo evidencia lo ocurrido en Amézqueta. Pues no, señor. En Amézqueta se ha demostrado que en Guipúzcoa hay tanto vigor, tanta fuerza y tanta potencia, como pudiera haber habido hace 100 años.*

*Albizuri-aundi levantaba esa piedra a placer. Téngase presente, sin embargo, que Albizuri-aundi era el propietario de la piedra y siempre la tenía a su disposición.*

*Si a los atletas que participaron ayer (sobre todo a cuatro o cinco de ellos) se les cede dicha piedra durante un mes, ¿quién apostaría a que no la levantaban? Esta es mi opinión y creo será la de la mayoría de los entendidos que presenciaron el histórico concurso.*

*Porque...no hay que dudar que la jornada de ayer fue histórica.*

*Los eibarreses, en cuanto se les permitió verla piedra que se hallaba precintada y controlada por el organismo federativo, se desbordó su entusiasmo, causándoles una impresión muy favorable debido a que ellos creían que era mayor. Lo mismo sucedió al resto de los concursantes, y esto animó sobremanera la expectación ya reinante.*

*El sorteo, que debía indicar el orden de actuación, fue público y emocionante. En conclusión: una jornada de apoteosis de la que Guipúzcoa entera guardará un perenne recuerdo”.*

Indartsu haiek guztiak ilusioz gainezka joan ziren lehiaketara, baina amorrazio ederrez etxeratutakoak bat baino gehiago izan zirela ere gauza jakina da.

## Basarriren hitz neurtuak

Apustua jokatu baino lehen egindako elkarrizketan zera galdetzen dio kazetariak Basarriari:

- Zure bertsorik entzungo ote dugu?
- Bestela ere zer eginik izango dut. Baina...auskalo.

Basarrik, kargajasotzaile bakoitzaren saioaren aurretik batzuetan eta ostean gainerakoetan, bakoitzari bere ahapaldia “esan” eta eskaini zion arratsalde hartan. Elizaldeko Euxtaxi Sagastumek bi gogoratzen ditu. Bata, Jabier Etxaniz eskainitakoa; bestea, Azkoitiko Usulari.

Etxanizi zuzendutakoa:

*Hobe zan Etxaniz  
etorri ez baitz.*

Usolaren lanaren aurrean:

*Usuola, jendeak esaten du jasoko dula,  
nik esaten det orain ikusiko degula.*

Beste pasadizo bat ere berritu dit Mattin Amundarain Berantetxeberrikoak oraindik orain. Ikusten denez, Amezketa plazan bildutako zaleen artean Sasturaingo Regina Altuna galdu egin omen zen. Umea noraezean zebilela ikusita, norbaitek hartu eta, Basarriengana hurbildu omen zuen, eta honek gertatzen ari zenaren berri eman omen zuen, ohol-tza gainetik, ozenki, goraki. Reginaren aita agudo inguratu omen zitzaion Basarriari, eta honek, bat-batean kontua argitu:

*Azaldu da jabea,  
pasa da nahigabea.*

Antolamenduan ez ezik, egun berean, apustu garaian ere parte zuzena izan zuen Basarrik eta bildutako jendetza pozik joan zedin nahi zuen.



Kontuak kontu, *Albitzuri-harria* inortxok jaso gabe geratu zen egun hartan. Ikusle gehientsuenk pozik egon ziren Amezketako plazan, indartsuak saiatu ziren bitartean; eta gure herritik pozik abiatu ziren, harri sonatu hura jasoko zuen amaren semerik ez zegoela ikusita.

Indartsu gehienen ahalegina hutsean geratu zela ikusirik, egun hartan bateon batek hau esanda utzi omen zuen plaza:

–“*Hiru gauza die alperrik galtzen dienak: basoan egurre, eroaren indarrak eta pobreen arrazoiak*”.

Indarra bai, galanki gainera zenbait kasutan, baina manejurik ez, ezin maneiatu. Hori gertatu zitzaion indartsu guztiei, ikuslez gainezka egindako Amezketako plazan.

Dena den, plazan ikusitakoak ez zituen egun hartako kontu guztiak ahitu. Apustua amaitu eta gero, *Albitzuri* harria jende askok ikusi nahi izan zuen gertu-gertutik. Irrika hori zuten guztiak asebetarik geratu zirenean, arreta handiz, tentuz harria hartu eta Udaletxe pean zegoen alondegira eramane zuten. Erne, ordea, plazakoarekin ez baitziren ahalegin guztiak bukatu. Kontua da alondegira eramanda gero, norbait –eta beti ezkutuan– harria bizkarrera eramaten saiatu omen zela eta Bentako amonari sinestera, baita berdindu ere legez, behar zen bezala. Kargajasotzailearen izena emateko ez zen gauza amona hura, baina behin eta berriz esan zuenez, bere bi begiz ikusita zeukan norbaitek nola jaso zuen.

Egia esan, arratsalde hartan hamaika kargajasotzaile espero zituzten Amezketan, eta azkenean bat gutxiagorekin osatu behar izan zuten zerrenda. Etorri gabe geratu zen Errekartetxo ote zen? Bentako amonak ezkutuan

jasotzen ikusitako hura, Errekartetxo ote zen bada? Inoiz argituko ez ditugun galderak dira hauek.

## Apustu egunak utzi zituen irabaziak

Fernando Amezketarrari egindako omenaldiak ere sos ugari eskatu zuen bere garaian, hots, 1924an. Albitzuri-aundi harriarekin egindako festak ere aurrekontu kezagarria zeukan 1947an. Udala kontuak egiten hasi eta uste baino emaitza hobearrekin topo egin zuen:

“*Gastos del gran concurso de levantamiento de la piedra*” Albitzuri-aundi” celebrado el día 19 del actual mes de octubre ..... 11.006,15

*Ingresos habidos en el gran concurso de levantamiento de la piedra de “Albitzuri-aundi”* ..... 19.505

*Diferencia a favor* ..... 8.498,8”

Beldurrez sartu zen txapelketaren antolamenduan Amezketako udala, baina espero baino erantzun hobearrekin bukatu zen 1947ko urriaren 19. egun hura.

Egun hartan hartutako argazkiei erreparatuz behin baino gehiago egin dut nere artean: Zenbat jende bildu ote zen Amezketako plazara? Ondoko egunetan egin ziren kroniketan ez da puntu hau argitzen. *Millares de apasionados espectadores* idatzi zuen *La Voz de España*ko kazetariak. Nire iritzira, lau mila osatzeko ez zen askoren beharrik izango. Seguru beste puntu honetan nago: Amezketako plazak ez duela santa sekulan halako betekadarik ezagutu.



## Errekartetxok “Albitzuri-aundi” jaso zueneko 1947an

Aurreneko saio hura egin ostean, “Albitzuri-aundi” harri zaharrari beste deitura berri asko eman zitzaizkion: taxuzko heldulekurik gabekoa, traketsa, eskuetatik iheskorra, kargajasotzaleei sufrimendua latz eragiten ziena... Horrelakoak esan ziren udazken hartan.

Hamar indartsuen porrotaren arantza sartu berria zegoen artean zaleen haragitan, baina luzaro gabe batean hasi ziren zurrumuruak...bakarren bat ba ote zegoen “Albitzuri-aundi” harriarekin burrukatzeko gogoz, alegia. Urriaren 29an etorri zen idatzi lehenbiziko aipamena, hau da, indartsuen igandea pasa eta handik hamar egunera. *La Voz de Españak* oso labur jorratu zuen:

*“Amezketako harriarekin ausartzen den bat. Albistea ez da ofiziala. Esan digunak, ordea, gure sinesgarritasun osoa du”.*

Bere izena gordean edukitzea nahi kargajasotzaile hark. Oso albiste gutxi zabaldu zen prentsan, hurrengo egunetan, isilaldi luzea nagusitu zen; hilabete on bat aipamenik txikiena ere eskaini gabe.

Amezketako udalak, ordea, bazuen ahalegin horren berri. 1947ko azaroaren 9an egindako plenoak albiste hau utzi zuen:

*“...a continuación manifestó la Presidencia que dn. Telesforo Lazcano le había solicitado la piedra denominada “Albitzuri-aundi” y la plaza de esta villa para el día 30 del actual mes de noviembre con el fin de realizar una prueba de levantamiento de la misma y como quiera que en el concurso que tuvo lugar el día 19 de octubre no fue levantada dicha piedra, proponía al Ayuntamiento que*

*estudiara el caso de que si se iba a dar la piedra y en qué condiciones. En su vista los señores concejales discutieron ampliamente el asunto y por unanimidad se acordó facultar a la Presidencia para ceder la plaza y la piedra “Albitzuri-aundi” al expresado don Telesforo Lazcano en la suma de 8.000 pesetas, siendo el cierre de la plaza a medias entre el referido Lazcano y el Ayuntamiento en caso de que le pareciera así a la Presidencia”.*

Aurreko pasarte horrek ez du argitzen zein izan zitekeen *Albitzuri-aundi* harria hatzaparretan hartu nahi zuen kargajasotzailea, eta gehientsunen galdera hau izan zen garai hartan: harriari nondik heldu behar zaion antzemandakorik ba ote dago bada? Galderak galdera, azaroaren 23an egindako plenoan berriro ere gaiari heldu behar izan zioten agintariek. Gerri-gerritik lotu beharreko arazoa zen gainera. Ikus:

*“Manifestó la presidencia que venía recibiendo algunas cartas en el sentido de que querían hacer pruebas con la piedra de “Albitzuri-aundi” y como saben muy bien los compañeros que se halla convenida la prueba para el último domingo de este mes, aparte de que no se ha dejado a nadie desde que se anunció el gran concurso de levantamiento de dicha piedra, pone el caso en conocimiento de los compañeros para que oído el parecer de los mismo, pueda o no autorizar el levantamiento de la piedra “Albitzuri-aundi” hasta tanto que el Ayuntamiento acuerde otra cosa”.*

Ez, bolada hartan ez zuen inork izan harriarekin probak egiteko aukerarik izaten eta ez dut uste, bere izena





Publizitate eta guzti iragarri zen Errekartetxok egin behar zuen ahalegina.

gordean eduki nahi zuen kargajasotzaileari ere eskakizuna onartu zitzaionik. Bertso zaharraren bidetik, honela erantzun zitzaizen guztieri, kargajasotzaileari zein zaleei:

*–Ez al dakizu/dakizue hemen harria probatzea ez dela lizentzi?*

Bigarren puntu baterako ere oina ematen du ordurako harri ezagunarekin burrukatu nahi izan zuen atletaren probaketak: prentsak batera berotu gabekoa izan zela. Harrigarria, aurreko saioak zenbaterainoko babesaren izan zuen kontuan izanik. Aipamenik txikiena ere ez zion opa izan aurreko egunetan *La Voz de España* egunkariak. Zer zela eta zekenkeria hura? Zer gertatu ote zen? Batek daki. Auskalo...

Aipamen oinarri-oinarrizkoa azaroaren 30ean bertan *Diario Vasco* egunkarian dator, baina *Probintziako berri txikiak* sailean, eta honela diosku:

*“Esta tarde, en Amézqueta, el morrosco azpeitiano “Errecartecho” intentará levantar al hombro la famosa piedra “Albizuri-aundi”, intento en el que recientemente fracasaron los mejores forzudos guipuzcoanos. Parece que domina la opinión de que lo logrará; en cuyo caso gana un premio de 10.000 pesetas y la copa”.*

Kontu txiki bat hemen, aurrera egin aurretik. Albiste edo ohar hau egin zuenak, igandean, *Errecartecho* idatzi zuen, hots, c eta ch baliatuz. Hurrengo asteartean, aldiz, k eta tx sartu zituen. Alegia, *Errecartecho* zena *Errekartetxo* bihurtu zen berrogeita zortzi orduren buruan. Bitxia kontua.

Gatozen orain *La Voz de España* egunkarira Errekartetxoren probaketa zela eta, aurretik hain zikoitz portatutakoaren orrialdeetara. Dezente aldatu zen haizearen norabidea. Azalean ere Errekartetxoren argazkia dator abenduaren 2ko ale hartan. Hitz hauekin osatu zuten argazki oina: *El forzudo “Errekartetxo”, con la “Albizuri-aundi”, al hombro, en la prueba que se celebró en Amézqueta. Con esta victoria el forzudo azpeitiano se adjudicó el trofeo de LA VOZ DE ESPAÑA.* Egunkari honek, Basarriren sinadurarekin, kronika nahikoa luzea eskaini zuen astearte hartan, aurreko igandean Errekartetxok Amezketan egindako markaz. Ezin esango dugu zabalera ikaragarria eman zionik, baina ez zen zurkerietan ibili. Garai hartan Basarrik ez zeukan artean bere eguneroko zutabea egunkarian, gerora hain ezaguna bilakatuko zen hura, hots, *Mi atalaya montañera*. Hurrengo lerroetan jasoko den idatzia, argazki bat osagarri zeramalarik, kirol orrialdeetan eman zuten ezagutzera. Argigarria da oso argazki oina, datu asko eskaintzen dituen. Egingo nuke Basarrirena dela hau ere. Eltze beretik aterakoak lirateke, beraz, nola argazki-oina hala artikulua. Hitzez hitz, honela dio argazki oinak:



1



2



3

- 1 \_ Errekartetxo oinetakoz aldatzen.
- 2 \_ Errekartetxo indartsua eta 1947ko alkatea, Juan Nizeto Sagastume.
- 3 \_ Francisco de Aguirre jueza, Santos Iriarte Errekartetxo eta Juan Nizeto Sagastume

“Errekartetxo”, el “morrosko” azpeitiano, que el domingo, en Amézqueta, logró levantar la piedra “Albizuri-aundi”, de frente, hasta el hombro, consiguiendo con esto el trofeo de LA VOZ DE ESPAÑA por ser el primero que, desde hace setenta años, realizar esta hazaña, que se bien es difícil en cuanto a la estructura y forma de la piedra, no lo es en cuanto a peso, ya que nuestros forzudos, todos, o casi todos, levantan pesos superiores a 170 kilos, que es el de la “Albizuri-aundi”. (Fotocar”).

Orain arteko idatzi hau Errekartetxo harria jasotzen erakusten duen argazki oinean dator. Eskuinean, kronika ematen zaigu:

“La piedra “Albizuri- aundi” ha dejado de ser “inexpugnable”.

El forzudo azpeitiano “Errekartetxo” se ha encargado de desbaratar la leyenda de 70 años. Hay que advertir al público que “Errekartetxo” ha tenido suficiente tiempo para confeccionar una piedra parecida a la de Amézqueta. Su bien demostrada capacidad de vigoroso atleta, sus numerosos entrenamientos con la piedra similar preparada al efecto, su exquisita alimentación y otros requisitos que ha sabido cumplir le han conducido al sendero del triunfo. Este resultado satisfactorio nos viene a conceder toda la razón. Hemos afirmado más de una vez que en Guipúzcoa hay bastantes forzudos con sobrado

poder para salir airosos costa de la “Albizuri-aundi”. Resulta para ello que la piedra permaneciese durante un lapso de tiempo en poder y a disposición de los atletas. “Errekartetxo” no ha efectuado ninguna prueba con la “Albizuri-aundi”, pero tenía en casa otra muy parecida en su estructura y de peso superior al de Amézqueta, con un margen bastante considerable.

En vista del resultado de esta última prueba, nadie que sea un poco sensato dejará de reconocer el el tremendo éxito del anterior concurso de Amézqueta se debió a la “incógnita” y a la falta de preparación por parte de los atletas. Porque... triste gracia hubiera tenido para nosotros que después de un mes de relatar el “misterio” y las dificultades de la susodicha piedra, la hubieran levantado los diez concursantes. Con justa razón podrían decirnos nuestros lectores: “Amigo Basarri: a engañar a China”.

“Errekartetxo” está en pleno auge. No será fácil de hallar en la actualidad un rival para competir con él. Por algo nos decía el otro día en el Bar Lazcano, de Azpeitia, aquel entusiasta admirador del forzudo: “Retamos a todo el mundo a medir en tres modalidades: con “Zapatari” para el arrastre de piedra; con “Errekartetxo”, para el levantamiento de peso, y con “Arria” a cortar troncos”.

¡Cualquiera os tose, queridos azpeitianos!

Le felicitamos cordialmente al amigo “Errekartetxo” por la gran proeza que ha llevado a cabo”.

Bi azalpen labur. Santos Iriarte “Errekartetxo” indartsua sasoirik ederrenean zegoen bolada hartan. Alde batetik, hogeita hamabost urte sasoi; bestetik, ordu asko sartua harri handiek.

Errekartetxo hasi zen Albitzuri-aundi harriaren taxukoa eginarazi eta saiatzen; bera izan zen lehenbizikoa. Gero, bide berbera hartu zuten Luis Atxega zenak eta Jose Antonio Lopetegi Agerrek ere. Guk dakigularik honek bakarrik gorde du entrenatzeko erabiltzen zuena. Ez dakigu zein izan zen Errekartetxok zuenaren errematea, eta gauza bera gertatzen da Atxegarenarekin. Zokoren batean egongo dira, agian.

### “Albitzuri-aundi” harriarekin Errekartetxok lortutakoaren oroitzapenak

Behin eta berriz azpimarratu dugun bezala, Errekartetxoren marka 1947an egindakoa da. Harrez gero, euri asko egin du, eta eguzkiak gogotik berotu ditu bazterrak zenbait garaiz. Gure sukaldetako hormetatik egutegi asko erretiratu behar izan ditugu gerozkoan. Hala ere, amezketar zenbaitek oso gogoan dauzka egun hark eragindako oroipenak. “Albitzuri-aundi” harriak lehendik ere bazituen bere istorioak, baina Errekartetxok egindako lanarekin istorioen poltsa eta morrala ere asko gizendu ziren egun hartan. Poltsa horretan eskua sartu eta bildu ditugun oroipenak ondoko lerro hauetan eskaintzen ahalginduko gara.

Ikusten denez, jende mordoska bat omen zegoen *Domingone* edo *Letradunea* etxeko tabernan. Beste hizpiderik ez Bibianaren bezeroen artean. Jasoko ote du, ez ote du...Gehientsuenak ezezkoaren ustekoak ziren. Bestela pentsatzen zuena don Rikardo Arrue, garai hartan herriko medikua. Norbaitek apustuaz galdera egin eta, eskuak alde batera zein bestera dantzatzu, hau erantzun omen zuen:

- Bai, jasoko du. Ez deskuidorik izan, jasoko du.

Konstante Galartza, ostera, ezezkoan omen zegoen, irmo eta seguru. Eta arrazoitu egin nahi zien gainera don Rikardori eta gainerakoei:

- Nola jasoko du ba... Albitzuri harria bizkarrean berdinduko bada, lepoa kendu beharra dago. Hori kenduz gero, denok dakigu gizonak zenbat balio duen... Hori berorrek –don Rikardori begira– nik baino hobetu jakin beharko luke–, burua alde batera erabat okertzeko itxura eginez.

Eta bien bitartean isilik zegoen don Rikardok erantzun halako batean erantzun zion:

- Gizona, gizona. Lepoa moztu beharrik ez dago... lasto-fardoa kabitzen da ba lepoan.

Hitz hauekin baliogabetu zuen don Rikardok Konstante Galartzaren arrazoiketa.

Apustu egunean, Errekartetxok, Amezketara iritsi orduko, plazatik urruntzea erabaki zuen. Ergonera bidean jarri zen, tipi-tapa, pasieran. Sasturain tabernan sartu nahi izan zuen, eta garai hartan hamalau bat urte zituen Mari Kontxi Altunak eman zion ongiatorria mostradoretik. Kafe pare bat eskatu zion beretzat Errekartetxok, eta baita fundamentuz Mari Kontxik serbitu ere. Kafea hartu ondoan, Mari Kontxik Errekartetxori:

- Jasoko ote duzu bada gure herriko harri famatu hori?
- Bai, bai jasoko dut– inork ez entzuteko moduan Errekartetxok erantzun.

Hala, Errekartetxok Plazarako bidea hartu zuen, eta Mari Kontxi aitarengana joan zen zera esateko:

- Aitte, ba al dakizu zer esan diten Errekartetxok? Ba, jasoko duela...jasoko duela, aizu.



- Bai, bai, ondo dago, umea...zer esatea espero zenuen ba?

Errekartetxo Sasturaindik irten eta Plazara ailegatu artean, trabesa asko eginda zegoen apustuzaleen artean. Apustu aurreko egunetan ez zegoen beste konturik herrian, eta bi sos zituenak beste hainbeste irabazi nahi...

Esaten denez, don Rikardo Arrue medikua don Manuel Lizarribar erretoreari mila duro jokatuta omen zegoen. Medikua jasoko zuela, eta elizgizonak ezetz...betiko leloa. Nire iritzira, dirutza handiegia zen hori egiazkoa izateko. Baina...

### Errekartetxo harriarekin burrukatzeko pronto


Epailleak lanari hasteko seinalea Errekartetxori egin dionean, orduan izan dira kontuak eta komeriak jokatzaileen artean. Hamar minutu haiek eternoak egingo zaizkio bati baino gehiagori. Minutueta oso aurrera doala, goitxoraino harria altxatzea lortuko du Errekartetxok, baina alde egingo dio. Hori ikusita, Jesus Altuna aguazila eta Errementarinek Jose Antonio Zabala ziztu bizian sartuko dira Domingonera, ustez irabazita zeuzkaten sosen kontura, freskagarri batekin eztarria gozatzerara. "Ezetz jaso" oihuaren aldeko apustua eginda zeuden biak. Dida batean egingo dute zintzurra bustitzearena, eta horrez gainera, izugarritzko burrunbada dator plazatik. Irten dira behintzat, estu eta larri, plazan zer gertatzen ari den ikustera, eta Errekartetxok bizkarrean harria nola berdintzen duen ikustea egokituko zaie...eta noski, sosak galtzea.

Aguazila eta Zabala ez omen ziren burua makurturik etxera joandako bakarrak. Horietako bat izan omen zen Sagastume-saletzeko Jose Altuna ere. Bere emazte Margarita Goñik esandakoa omen zen:



Errekartetxo epailleak noiz hasteko esan zain...

- Gure etxean zortziehun pezeta ziren aurrertuak. Apustu madarikatu honekin joan zaizkigu guzti-guztiak...



*Errekartetxo, Santos Iriarte, ahaleginean.*



*Errekartetxok altxaldi garbia lortu zuen Albitzuri-haundiarekin.*

Istorio apur batzuk bakarrik ekarri ditugu liburu honetara. Gehiago ere badira paperean bildu beharrekoak. Merezki du jasotzea.

## Errekartetxok harria jaso ondoko ikamika.

*La Voz de España* egunkariak egin zuen bezala, hurrengo asteartean, abenduaren 2an, *El Diario Vasco* ere Amezketan izandako probaren berri eman zuen. Ez da oso luzea, baina behar-beharrezko xehetasunak zuzen ematen ditu; hori bai, kazetaria ez dago zeharo konforme gauza batzuekin. Has gaitezen artikukuari begiratua ematen:

*"Errekartetxo" acabó con el mito de la "Albizuri-aundi" En 8'17'' levantó la piedra de Amézqueta.*

*"Errekartetxo", el forzado azpeitiano, consiguió el domingo acabar con la leyenda que en torno a la piedra "Albizuri-aundi" se había creado. Antes de transcurridos los diez minutos establecidos, Santos Iriarte se la posaba tranquilamente en el hombro. Y el público se sintió bastante decepcionado.*

*Todo ha venido a dar la razón a EL DIARIO VASCO. En nuestro periódico, firmado por G.H. Oñativia, apareció un artículo refiriéndose a esta piedra. Y en él se hacía constar el mito que esa mole encerraba. Todo consistía en la preparación. Si los amezquetarras hubiesen permitido a los forzudos guipuzcoanos unos días de ensayo con dicha piedra, en el mes de octubre hubiese sido ya deshecho el misterio que puede encerrar la "Albizuri-aundi". Ha bastado que el azpeitiano se haya "hecho" una piedra de pa-recida forma, ensayando unas cuantas veces con ella, para que la piedra amezquetarra pierda ya todo su valor.*

*No obstante, como todas las manifestaciones típicas de nuestra tierra, el anuncio de la prueba volvió a despertar interés y se volcó al pueblecito del Aralar numeroso gen-tío. E incluso por ocho minutos y diecisiete segundos de sesión, abonó hasta quince pesetas.*

Aurreko idatzi horretan aipatzen den G. H. Oñativia hori nor ote genuen? Tolosan bizi zen margolari entzute-tsua izan zen bere garaian. Bestalde, bere idatziak sarri-tan ikusten ziren *El Diario Vasco* egunerokoa eta zenbait

aldizkaritan. Guk 1958-1959 aldera ezagutu genuen To-losan, Sakramentinoetan genbiltzan garaian. Dotore jaz-teko ohitura zuen; deigarriena egiten zitzaidana, hala ere, bere "pajarita" zen. Ez dut gogoan beste apaingarri-rik ikusi nionik inoiz lepo inguruan. Nahiz eta urteetan aurrera joan, ile luze eta harroa beti oso apain eramate-ko ohitura zuen, eta betiko karpetatxo eskuetan. Planta ederreko gizasemea zen.

Kontua da Gregorio Hombrados Oñativia honek – hori baitzen bere deitura osoa– idatzi luze bat argi zaba-lera eman zuela *El Diario Vasco* egunkarian 1947ko aza-roaren 11an. Hautsak latz harrotu zituen bere artikuluak. Puntu asko nahasten ditu. Areago. Sarritan ez dakizu zer adierazi nahi duen. Aski luzea da eta zati batzuk baino ez bilduko ditugu hemen. Puntu asko nahasten ditu:

*¿ATLETISMO O...PIEDRA DE AMÉZQUETA?*

*Recapacitemos. Nosotros, como guipuzcoanos, creemos que se deben organizar y propulsar esta clase de festivales; pero, eso sí, sobre todo cuando se les da el renombre que ésta ha alcanzado: buscando lograr las mejores marcas posibles. Para ello, pongamos a las piedras asideros cómodos que permitan levantar pesos superiores para que luego la Prensa o la Radio divulguen por todo el mundo cómo en esta diminuta provincia se han realizado esas proezas. Pero lo contrario...*

...

*Guárdese el Ayuntamiento de Amézqueta la tal piedra como objeto de museo; diga que tan enrevesada la supo hacer uno de sus vecinos; diga, también, que la supo levantar con sus brazos –aunque sin trabas de ningún reglamen-to y tras cuantos ensayos juzgó conveniente, ¡que pare eso se la hizo a su gusto– y dígase aun, si se quiere, que en un concurso organizado –cuidadosamente organizado– en 1947, cogidos de sorpresa los más hercúleos guipuzcoanos, no supieron cómo levantarla (esa es la expresión más cierta, pues aun, alguno, no supo ni cómo cogerla).*

*Y eso no es la poesía del espectáculo. Ni deporte tampoco".*





idazten zuen Balda de Anjou Azpeitira joan zen Santos Iriarte "Errekartetxo" elkarrizketaratzera. Bisita 1976ko maiatzean egin zuen Balda de Anjou kazetariak. Xehetasun asko idatzi zituen erreportai hartan. Esate baterako, 63 urte zeuzkala; osasunez, kilikolo zebilela, aldakako desgastarekin; kalean baino etxean ordu gehiago egiten zuela; laugarren solairuan bizitzen ari zenez, asko sufritzen zuela eskaileretan... Familia osoa bere inguruan izan zuen Errekartetxok, eta ikusten denez, gaztelaniaz hitz egiteko erraztasun handiegirik ez zeukan. Bere emazte Mariaren iritziak ere islatu zituen kazetariak.

Hala ere, liburu honetarako iritzirik aberatsenak "Albitzuri-aundi" harriari buruzkoak dira. Galde-erantzun interesgarrienak ekarriko ditugu orrialde hauetara. Esate baterako:

-¿Quiere decir que usted vivía solo del levantamiento?

-Bai, bai, estaba a ello solamente. Detrás de mí había un bando que me pagaba un jornal y, además, me mantenía; era una sociedad.

-Pero, ¿cuánto venía a ganar fijamente?, prueba o exhibición aparte.

-Unas tres mil pesetas mensuales, de las de... entonces, ¡claro! Pues no estaba mal, apostilla... al tiempo que Maria, la "jefa" añadía: "Pues claro que no, lo que pasa, pasaba es que "vivir, vivía él naturalmente" y de qué manera"

-¿Qué vida, pues, de entreno, de sistema llevaba?

-Con las "arrias" andaba un día sí, otro no. Lo que se dice levantar, levantar: hacía otros ejercicios, y, sobre todo andar, andar mucho en el monte, tanto intercalando entre sesión y sesión de levantamiento como acompañando a las mismas tandas.

- Y ¿de comer, con orden también?

- Sí, sí, comer comía de todo; nada aparte o de especial; eso sí de beber y fumar nada.

CON LA "ALBITZURI-AUNDI" SOLO SAQUÉ 2.500 PESETAS DE 33.000..."OFICIALES"

*Si Ud era un atleta a sueldo, entera y seriamente entregado, recordará cuándo más fue que ganó dinero, ¿o no? Haría bastante ¿verdad?*

- *Si se refiere al día que levanté al "Albitzuri-aundi" le diré que desde aquel día escarmenté, aprendí bien, porque cómo explotaron.*

-¿Pues?

- *Mire con decirle que hubo sólo de taquilla - un genitío - en Amézqueta 15.000 pesetas, y 18.000 que se cruzaron unos y otros a cuenta de si levantaba o no, como colegirá mucho dinero entonces, y a mi únicamente me dieron 2.500 pesetas, para qué contar más, ¡eh! Y eso, lógicamente, de forma oficial, porque "oguerlekos, miles de duros, se jugaron muchos más.*

- *Recuerda Santos ¿cómo cundió la apuesta, prueba, y su fecha, como las peculiaridades?*

- *Mire, salió del probadero de Aizarnazabal, celebrándose unas pruebas de "idis". Por lo visto algunos corredores de apuestas, en entendimiento con la Federación la concertaron con la parte contraria, de Amézqueta, y conmigo contactaron en Tolosa, no sé, aquí me personé, suscribimos la cláusula, creo que ante notario, no recuerdo quien fue, y ya...*

- *Bien, pero uno tiene entendido que hubo sus más y sus menos si no en la competición al menos en torno a ella, ¿sí? Y ¿quiénes eran unos y otros?*

- *En el bando contrario a los corredores de apuestas - entre estos me acuerdo de "Lazcano", que murió, Ucin, etc. - por el lado amezquetarra estaba desde el panadero, vecinos otros, hasta el alcalde y párroco. Estos perdieron tanto dinero - repito del que entonces valía mas - que por poco este último al ver que ganaba se muere del disgusto. Después, pasado el susto, también de viejo moriría.*

*Respecto de otros detalles - hace un esfuerzo, tanto que media una oausa y silencio, pues orgulloso de ser el centro de la conversación no deja ni a Maria su mujer que le ayude en el recuerdo - no sé si eran las cinco de la tarde. ¡Ahí sí, de un 29 de noviembre. ¡Menuda "otza"! - frío - hacía, mucho.*

– Pero ¿cómo planteó la prueba, el intento? ¿Probó antes la “Albitzuri-aundi”, llegó a entrenarse días atrás?

– No, nunca la había tocado. Y si se refiere a lo que hice la víspera, le diré que me fui a dormir casi a la misma hora que hoy sigo haciéndolo, me levanté a las nueve menos cuarto, oí misa mayor – erri/meza – , y tras ella salí de Azpeitia.

“Ya en la prueba pasó eso que usted parece que sabe. Yo no solía usar ninguna prensa especial para levantar, pero por parecer, hacer más “deshente” el espectáculo, me dieron y usé un chaleco; y aquí viene algo que me pudo costar el no ganar, no alzar la “Albizuri-aundi”. Como el chaleco no había sido lavado ni estrenado, no agarraba la resina que le dí y entonces la “arria” se me deslizaba. Pasaba el tiempo, no veía como levantaría, y se me ocurrió darle la vuelta a la piedra. Entoncés sí ví que podría con ella, pese a su irregular forma, mala “kurpiya”, falta de oquedades para bien asirla y, sobre todo, a que con ese chaleco sin quitar el apresto de nueva, no me ayudaba a “retener” la piedra. Por fin cuando ya nivelé en el hombro, que todavía pude tener otro disgusto: pasaban los segundos y el federativo señor Aguirre no hacía más que dar vueltas y más vueltas en torno a mí, tanto que no pude

por menos que exclamar: “Esto es para levantar o para... ahí tener”. Al fin pitó válida; creo que había pasado ocho minutos y unos pocos segundos. Ya digo algunos, como el párroco, casi entonces mismo se muere del susto y lo que perdían. Se jugó incluso “100 a cinco” y mucha cantidad de dinero.

Yo estaba feliz, que muchos, incluso poco antes del 19 de octubre, en concurso de 10 de margen también, diez levantadores fracasaron. Y otra vez también que todo un “Usuola” no pudo ni moverla siquiera...”

No era para menos: nadie la había levantado desde el siglo anterior.

– ¿Algo más anecdótico?

– Recuerdo que ese día había partido en San Sebastián, de fútbol en Atocha. Volví tan contento a casa que le dije a la mujer: “Vamos a Azcoitia a ver “idi-probak”; eran las ferias de San Andrés con sus famosas pruebas de arrastre por yuntas. Y le entregué ese “dinerón” – las 2.500– poniéndola más contenta.

Kontu politik esan zizkion Errekartetxok kazetariari. Honek euskaraz jakin izan balu, elkarrizketa borobilagoa irten zatekeen.







## Jose Ibar “Urtain” indartsuak marka ezarri 1948an

Jose Ibar “Urtain” Arroako indartsuak, 1948ko uztailaren 4ean, Lasarten “Sasoeta-txiki” harriarekin egindako saio zela eta, bere kronika honela bukatu zuen Basarrik:

*“¿Qué pena que no estaba en condiciones de actuar cuando la memorable jornada de Amézqueta! Parece ser que la única obsesión de “Urtain” es la de depositar sobre sus hombros la histórica “Albitzuri aundi”.*

Bai, hori egiteko aukera eman zitzaion Urtaini ere, baina ez nahi orduko! Amezketako harri sonatuari hazzaparrak jarri arteko onik ez zuen izan, ez zeukan beste ametsik. Lasartekoa egin eta handik hiru hilabetera deitu zioten Arroako indartsuari “Albitzuri-aundi” harriarekin burrukatu zedin. Ezarritako eguna: 1948ko urriaren 17a, igandea.

Oraingo honetan ere Basarri izan zen Jose Ibar “Urtain” Arroakoak Amezketan ezarri nahi zuen markaz gehien idatzitakoa:

*“La exhibición del forzado de Arrona, “Urtain”, el próximo domingo en Amézqueta, ha despertado interés en la provincia. Urtain estaba dispuesto a jugar diez mil pesetas en adelante la cantidad que se quiera a que en los diez minutos de tiempo estipulados consigue levantar reglamentariamente la “Albizuri-aundi”*

*Nadie se ha atrevido a llevarle la contraria y él, considerando en su mejor momento para realizar este cometido, ha decidido presentarse el próximo domingo en Amézqueta a probar fortuna con la enrevesada “mole” causante de no pocos disgustos y por XXXX eterna obsesión.*

*¿Conseguirá Urtain alzar a la misma altura del temible Errecartecho?*

*Todo esto lo sabremos este domingo.*

*Mi impresión particular es que cuando Urtain va tan decidido a Amézqueta será para triunfar netamente obteniendo el premio que tan ardientemente desea.*

*He de decir en honor a la verdad, que somos minoría los que pensamos de esta forma. La inmensa mayoría de los que han hablado conmigo sobre el particular estiman que Urtain ha de fracasar.*

Porrota? Burua makurtu beharra...? Ez zuten ongi ezagutzen Urtain. Bai, igande hartan, 1948ko urriaren 17an Urtainek egindako lana aparta izan zen, aurrez pentsaezina. Ez da harritzekoa, beraz, hilaren 19ko egunkarrietan okerra zuzendu nahi izatea. Hori horrela, *La Voz de Españak* bere azalean lau argazki eder eskaini zizkion, *Otro que pudo con la “Albizuri-aundi”* izenburuarekin. Egia esan, dotoreak dira oso lau argazkiak. Argazkien oinuan, hau irakur daiteke:

*“Urtain”, el domingo consiguió levantar la piedra de Amézqueta, famosa ya por las veces que de ella se ha hablado en LA VOZ DE ESPAÑA en su constante exaltación de la popular y de los juegos rurales de nuestra tierra. Con ella organizó un concurso en el que todos los forzados guipuzcoanos que se presentaron fracasaron. Poco después la levantó “Errecartecho” y el domingo “Urtain”. Ya dejado de ser, por tanto, invencible por dos veces. En las fotografías se ve el proceso de levantamiento hasta el hombro, como rige en las bases. (Vea en la página cuarta la Atalaya Montañera de Basarri, donde se cuentan las incidencias de la jornada) (Fotos Alvarez)”.*





Orduko egunkariei sinisterra, Ignazio Oliden arraunlaria berebiziko atleta genuen. Bere familia oso ezaguna zen arraunlaritzan, eta Kontxako banderetan aberatzena: Hamaika Antoniok, hamairu bere anai Bautistak, eta haez gainera, beste launa Ignaziok eta Alejandrok.

Luis Atxega “Alde” indartsuak 2015eko ekainaren 16an utzi gintuen, 89 urterekin.

## Martin Errastiren jasoaldia

Atxega-Oliden bikoteak egindako saioak harrotutako soinuk isildu eta bolada batez Amezketako alondegian egon zen harrietan nonbratuena, sei-zazpi urtez, isilean. Hurrengo indartsua Agiñako Martin Errasti Reparaz izango zen Albizuri-aundiari uju egin zion atleta. Soldaduska bukatu berritan etorri zen Amezketara Errasti; Oliden oriotarra bezala hau ere arraunlaria zen, eta ez nolanhikoa gainera. Kontxan banderak irabazitakoa zen Martin ere.

Kontuak ateratzen aritu eta, alde-aldera 1956an edo 1957an lortutako jasoaldia izan zela esan genuke. Seguru asko, 1956koa. Pentsan-eta ez zuten deus esan. Inork ez zuen probaketaren gaineko albisterik hauspotu. Erdi-isi-lean joan zen, oihartzunik batere gabe.

Berak aitortu zigunez, zailtasun berezirik gabe berdindu zuen Amezketako harria sorbaldan, lehenbiziko ekinaldian. Amezketara etorri zenean, 82 kilotan ibiliko zela, eta metro bat eta hirugeita hamabost zentimetro luze izango zela aurreratu zigun.


2013ko ekainaren 12an hil zen Martin Errasti, 79 urte bete ondoan, Aginagan.



*Martin Errastiren ahaleginak ondorengo bost sekuenzietan.*













## Agerre II.ak, Donostian, 7 jasoaldi “Albitzuri-aundi” harriari

2015eko udazken kontuak dira, azaroaren 15ekoak. Beste txapelketa bat Amezketako harriarekin. Jaialdiari ekiteko, Joxe Anjel Sarasolak, mikrofonoa eskuan, historian egindako markak oso zehatz berritu zituen. Jakin-garria izan zen bere aurkezpena, eta aberasgarria, baina, nire iritzira, kargajasotzaile bat geratu zen aipatu gabe.

Lehiaketa hasi eta marka onak egingo zirela uste zuen adituek, baina uste baino jasoaldi gutxiagorekin geratu ziren gehientsuenak. Gazi-gozo asko izan zen ia guztientzat. Urtzi Telleria ez beste guztiak, buru-makur irten ziren pilotalekutik.

Horiek igandekoak kontuak dira, azaroaren 15ekoak. Hurrengo asteazkenean TVEk oso lan bikaina eskaini zuen Teledeporte katean, gaueko 10ak aldera: *Vintage8deportes vascos*. Garai batean hartutako irudiak ziren asko eta asko. Arrauna, pilota, aizkolaritza, segariak... eta kargajasotzea. Asteasura jo zuten kamerek Jose Antonio Lopetegi “Agerre II” indartsuaren kontuak jasotzera. Dokumentalari begirik kendu gabe nengoela, har hor non ikusten dudan Albitzuri-aundi harriarekin Agerre II.ak egindako saioan hartutako argazki eder bat. Bikaina zinez!

Jira-bira asko eman nion gau hartan nire buruari. Agerre II.aren saioari buruzko datuak behar nituen, kezka guztiak uxarazteko. Lanak izan nituen, baina indartsuarekin telefonoz hitz egitea lortu nuen, azkenean. Berak eman zidan balio gehieneko albistea: 1963ko Santio egunean, Donostiako Anoeta pilotalekuan egin zuela saioa... Saio honen berri *La Voz de España*ak soilik eman zuen; hori horrela, Basarriren hariari heldu behar berriz ere. Oso kontakizun txukuna eskaini zuen bezperaz egindako jaialdiaz, bere alderdi onak eta kezkaigarriak nabarmenduz. Berari emango diot hitza:



Jose Antonio  
Lopetegi-Agerre II  
Anoetako jaialdian.



Agerre II harritzarrarekin burruka bizian.

*“El festival vasco celebrado ayer en el nuevo frontón de Anoeta constituyó un éxito. No en el orden económico, pero sí en el deportivo.*

*Se ve que la piedra “Albizuri-Aundi” infunde aún mucho respeto. Nos lo dice el hecho de presentarse solamente un concursante, pese a los premios que había anunciados.*

*Hay muchos forzudos en el país que no se asustan por 167 kilos, que este es el peso de la mole de Amézqueta. Mas encierra serias dificultades, y a nadie le agrada quedarse en ridículo ante el “respectable”.*

*Está en la memoria de todos lo acontecido en el primer concurso de Amézqueta, celebrado el año 1947.*

*Hemos de manifestar en honor del único concursante, que fue José Lopetegui “Aguerre”, que su actuación resultó francamente maravillosa. Proporcionó nada menos que siete alzadas a la histórica mole.*

*La primera levantada se le registró a los 17 segundos; segunda levantada, en 1-31 segundos; tercera, en 2-23; cuarta, en 3-38; quinta, en 4-51; sexta, en 6-43; séptima, en 8 minutos, 40 segundos.*

*El público no era muy numeroso, mas se concentraron todos los entendidos. Gente que supo valorar y apreciar la proeza del forzudo azpeitiano. Fue despedido de la cancha con una atronadora ovación.*

*“Aguerre II” pesa 82 kilos. No son demasiados para comprometerse con tal “pieza”.*

*Uno más en romper la invunerabilidad de la “Albizuri-Aundi”. Quedó muy atrás su immaculado historial”.*

Arratsalde hartan saio ezberdinak egin zituen Agerre II.ak: 8 arroako zilindroarekin 20 jasoaldi minutuan, 125 kiloko bolarekin bereak eta bi... Hala ere, Basarrik gehien estimatu zuena apika Amezketako harriarekin egindako izan zela esango nuke:

*“Aguerre II” tiene motivos de sentirse muy satisfecho. Consiguió levantar siete veces la “Albizuri-Aundi”. Vino a realizar el mismo trabajo que efectuara Ignacio Oliden, en Orio, en Amézqueta, el año 1951.*

Basarrik dio bost mila pezeta irabazi zituela arratsalde hartan egindako lanarengatik Azpeitiko indartsuak. Nahiz eta Basarriren idatzian 82 kilo zituela azaldu, bi kilo gutxiagorekin plazaratu omen zen. Ondo gogoan dauka etxean esaten ziotena:



Jose Antonio Lopetegui-Agerre II-. 2016-03-17.

*–Laurogei kilo besterik ez hago.  
Ez duk jasoko. Ez gaitzak, behint-  
zat, lotsagarri utzi! Horixe behar  
genikek orain Agerretarrok...*

Bai, izen handikoak ziren Agerretarrak indar-kontuetan. Jose Antonioren senideek ez zuten nahi Agerretarren izen on hura inondik ere gal zedin. Nahikoa lasai joan zen plazara Agerre II. “Albitzuri-aundi” harriaren tankera bertsukoa zeukan etxean; zerbait astunagoa gainera. Eta airean ateratzen zuen bizkarrera harria. Jasoko ez zuen bada Amezketakoa! Berak esaten duenez, bost mila pezetan erositakoa da, Albitzuri-aundi harriaren tankerakoa. Asteasun dauka gaur egun.

Joan den neguan bisitatu genuen Jose Antonio Lopetegui “Agerre II” Asteasun, bere txokoa. Udarregi bertsolariak esango zukeen moduan, orduan “larogeita sei urte ez zituen apartian”. Sasoiko, hala ere, buruz zein soinez, eta arestian aipatutako Udarregiren bertsoaz behin baino gehiagotan gogoratu nintzen goiz hartan:

...  
*plazara joan liteke  
jaun horren kontuâ  
ezaguera ona ta  
joera prontua  
zartuagatik dauka  
gorputz sueltua.*





## Perurena, Gibitegi eta Goenatxo II Amezketako harriarekin

“Albitzuri-aundi” harria alhodegian egon zen 20 urtez. 1976an bukatu zen bere ixilaldia. Amezketako Alkatearen baimenarekin, 1976ko maiatzaren 28an prezintatu egin zuten harria, Donostiara eraman, *La Voz de España* egunkarian erakusgai jarri eta txapelketa bat antolatzeko. Erabaki honen kontra Amezketar asko altxatu ziren. Tensioa, Guardazibilak plazan, asko mikaztu zen giroa herrian... Donostian ez baino herrian bertan egitea erabaki zen hurrengo txapelketa. Berehala hartu zen erabakia. Udazken hartan bertan egingo zen txapelketa eta lanari ekin zioten gazteek.

1976ko urrian, 17.egunean, plazaratu zen, ordea, berriro. Hori horrela, ikusmira herrian bertan jartzea erabaki zen, eta hilaren hamazpigarren eguna aukeratu zen horretarako. Jakin bagenekien azken urteetan zer nolako aldaketa eman zen harri kontuetan. Aurreko hamarraldietan ez ziren indartsu asko hama sei arroako eta antzekoekin plazaratzen zirenak. Oso besterik zen, ordea, 1976 aldera. Kargajasotzaile sorta polita zegoen harri haiekin jendaurrean jarduten zutenak, eta ondo jardun ere. Haiei ez zitzaien utzi Albitzuri-aundi harriarekin burrukatzen. Zerrenda hauxe zen: Endañeta, Urtain IV, Martin eta Joxe Mari Mendizabal Adunakoak, Iurrebaso, Azkurreta eta Agerre II. Gainontzeko guztientzat atek zabalik geneuzkan Amezketan.

Izen-emandakoak hauetxek izan ziren: Azpeitiko Antonio eta Jesus Mari Oiartzabal anaiak, Elgoibarko Jesus Mari Iriondo, Elduaingo Juan Otamendi, Oiartzungo Usategieta III, Markinako Pedro Mari Arriaga, Amorotoko Jose Jauregi, Zarauzko Iruretagoiena, Markinako Felipe Urkia eta Amezketako Juan Goitia.



Iñaki Perurena Albitzuri-aundi harriarekin burrukan.

Saio hartan hobekien moldatu zena eta hiru bider harria oso goian ibilitakoa Iruretagoiena zarauztarra izan zen; beste guztiak nahikoa lan izan zuten belaunetaraino jasotzen.

Sari bikainak zeuden lau lehendabizikoentzat aginduta, baina sos guztiak Amezketan geratu ziren. Zuloaga kazetariak honela zioen hurrengo asteartean, urriaren 19an, *El Diario Vasco* egunerokoan:

*“El éxito deportivo y el económico de la jornada del domingo, que contó con la valiosa cooperación de Muebles Yani, de Zaldivia, Irovisa y Alfa-Eguimendia de Tolosa, Bodegas Berberana de Irún y la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, esperamos que los jóvenes amezquetarras organicen allá para la primavera una nueva y gran jornada con su famosa “Albizuri-Aundi”.*

Balda de Anjouk, bere aldetik, *La Voz de España*n honela idatzi zuen:

*“Bat ez gainontzeko sariak banatu gabe geratu ziren; emandako bakarra herriko lehendabizikoarentzat izan zen, ahulenarentzako, lurra ere ez zion kendu eta”.*

Kazetariak idatzitakoa aintzakotzat hartzera, egun hartan Amezketan izan omen zen “Errekartexo” azpeitiarra. Oroitzapen zaharrak berritzen, eguneratzen, nonbait...

Hurrengo urtean, 1977an, ez Zuloagak espero bezala, baizik udazkenean antolatu zen bigarren txapelketa: urriaren 23an. Oraingoan nahi zuten indartsu guztiei zabaldu zitzaizkien ateak. Izena emandakoak: Perurena, Goenatxo I, Azkurreta eta Ziorraga; eta bosgarren bat, Iruretagoiena zarauztarra, duda-mudatan zebilen... Herriko jubilatuek doan izan zuten sarrera; bestela, bildutako dirua herriko Ikastolarentzako izan zen.

Amezketara azaldu ziren guztiak amets berbera zuten: hogeita bat urte bete berriak zituen leitzarrak zenbat bider jaso ote behar zuen harri “beldurgarria”.

Balda de Anjou kazetariak honela kontatu zuen Amezketako plazan ikusitakoa:

*“Cinco concursantes en esta segunda edición, ambiente, nerviosismo y hasta “bildurra” incluida, todo mezclado incluso en alguno de ellos, como por caso en el “bizcarrata” Azcurreta...”*

*...Iruretagoyena abrió la competición. Éste, a los 29 segundos, lograba una “levantada”; todo hacía predecir que en esta ocasión no pasaría lo que el año pasado que...nadie se estrenase. Y es que ahora había mejores participantes”.*

Latz saiatu zen Iruretagoiena bigarren jasoaldi bat ematen, baina ez zuen lortu. Gauza bera gertatu zitzaion Azkurreta bizkaitarrari ere, hau da, hutsik itzuli zela etxera. Inork gutxik espero zuen plazan Ziorragak jaso behar zuenik, baina bizkarrean berdintzea lortu zuen 5 minutu eta 28 segundo zeramatzanean.

Laugarren indartsua arratsalde hartan Azkoitiko Goenatxo I zen. Kazetariak honela ikusi zuen bere jarduna:

*“La verdad es que sin el incommensurable Perurena su tarea hubiese más que bastado para llenar al público, y es que cinco alzadas, a falta si se quiere de 50 segundos para el límite, pasaba a ser algo de entidad y no al alcance seguramente de muchos otros levantadores. Las “sacó” a los 19 segundos, 1-25, 3-41, 5-45 y, por tanto, la última cuando el reloj contabilizaba 9 minutos y 10 segundos de acción.*

POR ULTIMO, EL “INCONMENSURABLE”  
PERURENA

*Por último llegaba la cita para Perurena. Fue una “oarkun” indescriptible: cuando cesaron las aclamaciones pudo ponerse manos a la faena. Y ¡qué faena!, iría a dejar; algo que nos atreveríamos a creer que, salvo él*





*mismo, en adelante no será así como así siquiera igualada. En nada le influyó que la gente en sus ávidas miradas, como siempre pero más en esta oportunidad, le estuviese pidiendo otra sensacional marca o cometido; ni tampoco el hecho de que actuase el último le impresionaba; su temple, algo ya innatamente excepcional, no podía ceder más que a las propias dificultades que aún pudiese tener, ofrecer la “Albizuri-Aundi”, y que, finalmente, no existieron más que entendidas a tiempo hábil para poder registrar, con haber sido más amplio, mayor número de alzadas válidas.*

*En verdad en diez minutos trece alzamientos escapaban a la más lógica previsión por mucho que del de Leiza quepa siempre aguardar, y en 9”, 44”, 1-25, 2-14, 2-53, 3-32, 4-18, 5-23, 6-28, 7-17, 8-04, 8-58 y 9-35 plasmaba algo nuevamente antológico.*

*¡Qué cabía exclamar ante ello! Todos tras unos segundos pasaban a aclamarle mientras el “morroso”, apenas alterado el resuello, sonreía”.*

Aho-zabalik utzi gintuen Leitzakoak arratsalde hartan, zurturik. A zer nolako sasoi! A ze nolako marka berea! Gauza askok harritu ninduen, bere indar erakustaldiaz gainera: harriari nola heldu, zenbat kolpetan jasozen saiatu, ze erritmotan jardun... Buruari buelta asko emanda zegoen. Hasiera beretik erakutsi zigun lezioa ongi ikasiarekin zetorrela Amezketara.

## Iñaki Perurenak 1978an ere markarik hoberena

Urriaren 30eko alean, Donostiako *Hoja del Lunese* idatzi luzea eskaini zion bezperan Amezketako plazan ikusitakoari. Halamoduz itzulita nahi baduzue, baina osorik eman nahi izan dut kronika hura:

“ALBITZURI AUNDI HARRIA PERURENAK 10  
BIDER BAKARRIK JASO

*Jasotzeko hain zaila den 162 kiloko harriarekin burrukatzera, urtean behin biltzen dira Amezketan Euskadiko indartsuak, hain traketsa den harria bizkarrean berdintzeko asmoz. Harria Udaletxean edukitzen dute gorderik eta ez dute ez entsaiarik eta ez ariketarik berarekin egiten uzten, eta beraz, ikusi hutsarekin konformatu behar eta aurreko urteetan lortutako eskarmentuarekin.*

*Duela urtebete, Perurena kolosoak marka guztiak hautsi zituen. Hamairu jasoaldi, alajaina. Orduan bigarrena izandako Goenatxok bost baino ez zituen lortu.*

*Perurenak ez beste guztiak ondu dituzte euren markak aurtengo lehiaketan. Leitzarrak hamar jasoaldi baino ez zizkion eman harritzarrari. Beraz, galtzaile irten ziren bere alde “hamabost baietz” dirua jokatu zutenak. Aurtan marka horretatik urrun geratu da. Zazpi ziren guztira plazaratutako harrijasotzaileak eta banan banan baikoitzak egindakoaren berri emango dugu.*

*Lehen lehenik, Otaegi Goiazkoa irten zen; 23 urte eta 95 kilo. “Hiru baietz” zegoen dirua eta katedrak bete-betean asmatu zuen, izanez ere hiru bider altxatu baitzuen. Lehenbizikoa 32 segundoan, bigarrena 3 minutu eta 34 segundoan eta hirugarrena, 8 minutu eta 17segundoan.*

*Bigarrenik, Gibitegi, hau ere Goiazkoa, 19 urteko gaztea eta 105 kilokoa. “Lau baietz” esaten zen plazan. Eta oraingoan ere bete-betean asmatu. Lau bider berdindu baitzuen bizkarrean: 28”, 2’28”, 5’23” eta azkena 7’38’ denboran.*

*Arroako Urtain IV.rekin – 30 urte eta 97 kilo– kale egin zuen katedrak, “zortzi baietz” oihukatu zen eta, baina boxealari ohiaren anaiak seirekin konformatu behar izan zuen. Kontua da hasierako bost minutuetan oso ondo jardun zela, hoietan lortu baitzituen jasoaldiak, eta bigarren zatian bat bera ere ez. Ahalegin guztiak alferrikakoak gertatu zitzaizkion. Hona hemen bere bidea: 15”, 1’20”, 2’24”, 3’15”, 4’27” eta seigarrena 5’26”.*

*Hurrengoa, Iurrebaso. Apustua: “bost baietz”. Dimako indartsuak, bere 33 urte eta 106 kiloekin, bost jasoaldi horiek egin zituen. Denborak: 23”, 1’27”, 3’24”, 5’7” eta 6’58”.*



*Bere pisua aintzat harturik, proportzioan arrakastarik handiena lortutakoa Ziorra Azkoitikoa izan zen. Adinez, 28 urte eta pisuz, 86 kilo. “Hiru ezetz” esaten zuten adituek eta artekariak...eta bost jasoaldi eman. Denborak: 29’’, 2’40’’, 4’33’’, 6’25’’ eta 9’42’’.*

*Espero zenari erantzundako beste bat Goenatxo izan zen; egoki erantzunez apustulariei eta iazkoa marka hobetuz. Azkoitikoak 24 urte dauzka eta 100 kilo baskulan. Bere jasoaldiak denbora hauetan lortu zituen: 15’, 1’17’’, 2’23’’, 3’35’’, 5’10, 7’17’’ eta 9’15. Zazpi jasoaldi, guztira.*

*Eta azkenik, Perurenaren saioa. Esan bezala, “hamabost baietz” zioten artekariak, hau da, iaz baino bi gehiago baietz. Gaizki hasi zen, lehenbizikoa jasoaldia 25 segundotan lortu zuen-eta; aurreko urtean 9 aski izan zituen. Hurrengo jasoaldiak: 1’28’’, 2’10’’, 2’57’’, 4’03’’, 4’47’’, 5’37’’, 8’27’’, 9’24’’ eta 9’47’’. Bost bider ihes egin zion harriak.*

*Ikusleak ez ziren gustora irten eta zenbait garaitan txistuak entzun behar izan zituen”.*

Iñaki Perurena ez oso konforme etxeratu egindako lanarekin. Hogeita hemezortzi igaro dira harrezkero, lehiaketa hura egin zenetik. 2015ko udazkenean egindako lehiaketa amaitu zenean, zera aitortu zidan Iñaki Perurenak:

*Ez dago esaterik misterioz beteriko harri honek zer duen bere barnean. Maltzurragorik...*

## **1990an, Goenatxo eta Gibitegiren markak: hama-launa jasoaldi**

Bikaina zen Perurenak 1977an egindako marka. Zenbaiten iritzira, “tapatu” ezina. Ez ziren asmo horretan joan Amezketa Ignazio Otaegi “Gibitegi” eta Juan Jose Unanue “Goenatxo II” 1990ko azaroan. Gauza beretsua esan liteke Migeltxo Saralegiz ere. Nahiz eta indartsuak izan, oso beste maila batekoak ziren Iñaki Gil eta Jesus Mari Pato Losada.

Bost indartsuok pixuz ere ondroso zebiltzan gehienak. Guztien buru, Iñaki Gil, 150 kilorekin. Gibitegi bera ere ez zebilen atzera: 125 kilo.

Ez dago ikuskizun hobea ikusterik. Bost indartsu plazan eta guzti-guztiek ere lan aparta eginda etxeratu ziren. Amezketa plazan izan den jaialdirik onena ez ote gero berau? Inoiz egin den saiorik ikusgarriena izan zen 1990ko azaroaren 4ko hura, askoren iritzira. Esaten denez, bi mila ikusletik gora baziren Amezketa etorriak, eta hauek ere asebeteta joan ziren gure herritik.

Gibitegik “harri-ipintzaile” Martin Gabilondo eraman zuen eta Roke Garmendia, erloju-zaintzarako.

Goenatxo II.ak esku-eskuan eduki zuen apustua irabazteko proportzioa, baina azken jasoaldia ez zioten ontzat eman. Hamalau jasoaldirekin konformatu behar... Hantxe ihes egin zion garaipenak.


Egunkariak ere interes berezia aitortu zioten norgehiagokari eta, *Diario Vascok*, adibidez, bi kazetari eta argazkilari bat bidali zituen Amezketa: Zuloaga, Joseba Lezeta eta Postigo. Oso orrialde bikaina eskaini zioten Amezketa plazan ikusitakoari:

### ***Gibitegi destruyó el mito de la Albizuri haundi***

*Fue declarado vencedor, aunque Goenatxo también levantó catorce veces la mole.*

*Gibitegi y Goenatxo fueron los grandes protagonistas, junto a la Albizuri Haundi, del concurso disputado ayer por la tarde en Amezketa. Ambos harrijasotzailles guipuzcoanos consiguieron alzar la mítica piedra en catorces ocasiones, batiendo así el récord que ostentaba Iñaki Perurena desde 1977 con 13 intentos válidos. Los más de 2.000 espectadores reunidos en la plaza de Amezketa, junto al busto del hijo más ilustre de aquel pueblo, Fernando Amezketarra, desconocían a quién correspondería la victoria final. El veredicto no tardó en confirmarse: triunfo para Gibitegi por haber actuado con anterioridad a Goenatxo. El de Goiatz lo hizo en primer lugar, mientras que el azkoitiarra era el último en subir al tablado.*





*Beso luzeak behar harriari heltzeko, eta.*



*Gibitegik marka bikaina lortu zuen Amezketan.*

*Esta decisión no fue del agrado de todos, aunque ninguno de los allí presentes rechazó en el momento en que se dio a conocer a través de los altavoces. Los comentarios indicaban que la victoria se debía de decidir de otra forma, quizá teniendo en cuenta los tiempos de*

*la última alzada. Los organizadores, en plan salomónico, concedieron el mismo premio en metálico a ambos: 175.000 pesetas. Pero el palmarés tendrá a Gibitegi como ganador.*



Iñaki Otaegi-Gibitegi- eragozpenik ez Albitzuri-aundi jasotzeko.

*El espectáculo, en lo demás, fue precioso, de los que se presencian pocas veces en el levantamiento de piedra. El público congregado para ver la actuación de los cinco participantes –el alavés Iñaki Gil se unió a Gibitegi, Goenatxo, Saralegi y Pato a muy última hora– disfrutó del trabajo completado por estos deportistas. Ninguno de ellos decepcionó y todos ellos fueron capaces de alzar la piedra al hombro, al menos cinco veces, algo impensable no hace muchos años.*

*...Variedades técnicas*

*Otra de las grandes aportaciones de la tarde de ayer fue la variedad de técnicas utilizadas para llevar al hombro la Albizuri Haundi. No hubo dos iguales. Las de Gibitegi y Pato resultaron similares, pero hubo una pequeña diferencia entre ambos. Si bien los dos colocaron la mole entre las piernas para llevarla al pecho e igualarla en el hombro con dos golpes, mientras Gibitegi lo hacía con la parte más plana sobre el pecho, Pato apoyaba el lado ovalado sobre el cuerpo.*

*...Gibitegi y Goenatxo, muy igualados*

*Gibitegi, Iñazio Otaegi, fue el primero en actuar. Era consciente de sus posibilidades, y su objetivo era superar las 13 alzadas de Perurena. Sus diez minutos, muy bien controlados por su ayudante Luxarbe, estaban planificados. Había tenido la oportunidad de estar cuatro veces en Amezketa –Goenatxo lo hizo en tres– para probar con la Albizuri Haundi y ello se notó. En los primeros cinco minutos ya llevaba siete alzadas, que se repitieron en la segunda parte.*

*...Goenatxo, a quien correspondió acercarse a la piedra en último lugar tras sus cuatro, ya sabía quién era el hombre a batir: Gibitegi. Hasta el noveno intento, los tiempos de los dos guipuzcoanos se mantuvieron parejos. Fue a partir de ese momento cuando el azkoitiarra apretó los dientes. Ganó segundos en cada alzada, hasta que marcaba el decimocuarto intento válido con el cronómetro en 9'18''. Restaban 40 segundos para el final de su tiempo y había segundos suficientes para agarrar de nuevo la mole de 165 kilos. Lo intentó pero no fue capaz de llevarla hasta el hombro, ya que la Albizuri-Haundi se escapó de sus manos. En nuestra opinión se precipitó. Esperar unos segundos más le hubiera valido la victoria.*

*Jakina da Albitzuri-aundi harriak zenbat bihotz-taupada azkarrarazi dituen Amezketan dagoen bitartean. Alde horretatik oso aberatsa da bere historia. Hala ere, 1990eko azaroak utzi zigun ikuskizuna ezin liteke inolaz ere ahaztu. Hain izan zen bikaina!*





## 1996an, Goenatxo II.ak marka ezarri: 15 jasoaldi

Beste sei urteko etenaldia. Harria, alondegian jasota; kargajasotzaile onenak irrika bizian hurrengo lehiaketa noiz izango zen jakiteko. Horien guztien artean interesatuena Juan Jose Unanue “Goenatxo II”. Huskeria bategatik geratua baitzen garai guztietako markarik onena ezarri gabe.

Kontua da 1996ko azaroaren 11an berriro ere bera zela parte hartzaile guztien artean faboritoena. Eta oraingoan ez zuen huts egin. Diario Vasco egunkariak:

*Goenatxo se apuntó un nuevo récord con la “Albizuri-Haundi”.*

*El azkoitiarra realizó quince alzadas, tres más que Saralegi.*

*Juan José Unanue Goenatxo batió una nueva marca con la Albizuri Haundi, al colocarla sobre su hombro en quince ocasiones, una más que el anterior récord que él mismo compartía con Gibitegi con una alzada menos. Ayer, ante un abarrotado frontón de Amezketa, el azkoitiarra demostró su superioridad sobre todos los demás y se metió al público en el bolsillo con su fantástica actuación. Goenatxo colecciona ya amplia racha de triunfos y récords que, conforme pasan los años, va incrementando. A sus 37 años, aún no sabe dónde está su límite.*

Marka izugarria utzi zuen Goenatxo II.ak 1996an. Hogei urte joan dira eta ez dirudi, orain-oraingoz behintzat, marka hori tapatzera inor plazaratuko denik. Horrelako asmo batek bakarrik bildu lezazke berriro ere bi mila ikusletik gora Amezketako plazan.



## Jose Migel Artola harrijasotzailearen ilun-argiak. Joseba Zubeldia

Orain arte “Albitzuri-aundi” harriarekin burrukatzera kanpotik etorritako indartsuen kontuak aipatu ditugu batez ere, eta zenbaitek galde dezake: herriko harrijasotzaileak aipatzeko asmorik ez al duzu? Ez al zen kirol horretarako joerarik?

Bai, kargajasotzea amezketar zenbaiten zaletasuna ere bazen garai batean. Liburu honetan bertan esana dago, *Albitzuri-aundi* harriaz gainera, bazirela mendian beste bi harri artzainen sasoiak eta indarra neurtzeko. Zealar eta Aintziriko harriez hitz egin dugu Bai, garai batean “kargajasotzea” esaten zitzaion edozein gauza bizkarrean berdintzeari. Golde bat, zaku beteak, harriak...edozerk balio zuen indarrak neurtzeko, apustu egiteko. Kontuok jorratuta dauzkagu iada.

1950 aldera, San Bartolometan, ez zen urterik izaten herriko harrijasotzaileen saiorik gabe. 23. atletik aurrera Amezketan erabili izan diren harrien gainean zertzelada batzuk eman ditugu. Ezaugarri bat eta bera daukate hirurek: landugabeak direla. Litekeena da “Albitzuri-aundi” harria ere landutakoa izatea, baina ez harrijasotzerako egokitua, pilotarako “bota-harri” izateko baizik. Beraz, harri traketsen sailean sartuko dugu. Baziren, ordea, landutakoak ere herrian. Axintxio Artolak aitortu zidanez, bazuen berak egokitutako Ugarteko *Etxerri* edo *Etxeberri* baserrian. *Apaetxen* jaiotako Lorentzo Agirrebarrenak ere bazuen bere gustoko harria ia bere etxe atarian. *Intxausti* erori zenean harri dotore askoak atera ziren indarrak probatzeko...

Zortzi-hamar arrokoeekin Amezketa plaza egindako saioak erakutsi ditugu 35. atalean, argazkien bidez. Gehiago ere izango dira seguru asko, baina horietxek soilik jaso ahal izan ditugu.

### Jose Migel Artola ugartearren gazi-gozoek

Jose Migel Artolaren kontuak berritzailekoan, Manuel Lasarteren hiru lerro bururatu zitzaizkidan:

*“Sarritan apustua egiterakoan deskuidatzen dira gizonak. Norberak aukera artu bearrean kontrarioari eman ustegabeen, ta gero txoriak eskutik aldegin. Orrelako jokatibideak azkenean ez dute bukaera onik”.*

Artolak egindako apusturik sonatuenean horixe gertatu zitzaion: txoriak eskutik alde egin ziola. Horixe erakusten digu Joxe Migelen biografiak.

Ugarteko *Etxaerri* edo *Etxeberri* baserrian jaiotako Jose Migel Artola indartsuari buruzko aurren-aurreneko albisteak 1961ekoak dira. Urte hartako urtarrilaren 20ko alean, *La Voz de España* egunkarian, Basarriren lumatik zetorren kontua:

*“Bedaioko Ramon Jauregi Larrañetakoak aupada luzatzen ziola Etxeberriko Jose Migel Artolari, 200 kiloko harriekin indarrak neurtzera. Harriak laurogei zentimetroko altuera izan beharko zuela, baina edozein tajukoa izan zitekeela...Hogeita bostna mila pezeta jokatze-ko prest zegoela, eta hamabost eguneko epean erantzun beharko ziola Artolak”.*

Esaten denez, goian dagoenak jotzen omen du kuku-rruku eta goian zegoela uste izan zuen Ramon Jauregik; alegia, Artola baino maila bat gorago zegoela. Hori adierazi nahi izan zuen botatako desafioaz. Jose Migel Artola, ordea, ez zen uste hortakoa, eta plazan elkar ikusiko






Jose Migel Artolak egindako apustuaren iragarkia.

zutela esan zion. Horretarako otsailaren 4ean, Tolosan, garai batean esaten zen bezala, “tratua itzez zerratu ondoren”, alde biak apustua egitekotan geratu ziren. Egun hartan hartutako beste erabaki zenbait: 1-. Bizkarrera altxa beharreko kargak *harri-harria* izan behar zuela; hori horrela, hala berunezkoa nola gainerako eranskinak erabat debekaturik izango zituztela. 2-.Harria zilindro formakoa, errektangularra edo kuadroa izan zitekeela. 3-. Harria aurretik, atzetik edo albotik jaso zezaketela. 4-.Jasoaldi bentaja ematen zion Bedaiokoak Amezketa-koari, baina honek hasi beharko zuen lanean.


*Etxeberri* baserritik *Larrañetara* ez dago ibilbide handirik eta bistan da elkarren berri ondo baino hobeto zekitelatela indartsuek. Kontratoa ikusi ostean hauxe idatzi zuen Basarrik, otsailaren 23ko bere zutabea, *La Voz de España* egunkarian:

*“No hay necesidad de hacerles ver la complicación de una mole de 200 kilos. Por esto, precisamente, se permiten muchas cosas en las cláusulas del contrato. No ponen reparos en la forma que pueden tener las piedras ni el estilo que pueden utilizar para levantarlas y nivelarlas en los hombros.*



Jose Migel Artolaren lehenbiziko mugimenduetan.





*Jose Migel Artolaren teknika berezia.*



*Jose Migel Artolak latz saiatu behar harria horrela bizkarreratzeko.*





*Jose Migel Artolaren ahalegina.*



*Agerre azpeitiarra Artolarekin neurtu zen egunean.*



*Ramón Jauregui, antes de ahora, realizó grandes hazañas con los “fardos” pesados. Para ello tiene su gimnasia particular y práctica “sui generis”.*

*Y el que ha decidido a llevarle la contraria, cree el cronista, tendrá sus manejos particulares; algo sabrá el de Amézqueta de esta clase de esfuerzos.*

*Me da la impresión de que ninguno de los dos levantará la piedra de frente, sino que se valdrán de sus propias artimañas y posturas. Así y todo, hace falta coraje para encararse con los “fardos” de 200 kilos”.*

Basarrik ez zuen 1961eko apirilaren 16an egindako apustu hura ikusteko modurik izan. Askaingo herrira joan beharra egokitu zitzaion. Hala ere, astearteko zuta-bean apamen hau eskaini zion apustuari:

*“En Tolosa, según referencia de la “Hoja del Lunes”, el joven Artola, de Amézqueta, venció con cierta facilidad a Jaúregui, de Bedayo. Este, reconociendo la inutilidad de sus esfuerzos y su inferioridad, optó por retirarse. Artola llevaba conseguidas trece alzadas con la piedra de 200 kilos, y 7 Jaúregui.*

*Supongo que no gustaría al público el estilo empleado por los forzudos. Esta clase de piedras no se prestan para el lucimiento de los atletas. Al no levantar la piedra de frente, como es uso y costumbre en el país, el espectáculo pierde brillantez”.*

Huraxe izan zen Jose Migel Artola ugartearrak irabazitako apustu handia, eta Tolosan txalo-jotze beroa egin zitzaion. Hurrengo apustua galtzea portunatu zitzaion; Azpeitiko zezen-plazan, 1962ko uztailaren 8an. Arerioa ere halakoxea izan zuen: Agerre azpeitiarra, garai hartako kargajasotzaileri onena hamasei arroako harrietan. Ez dakigu burua nork berotu zion amezketarrari apustu hura onartzeko. Oso txarra egin zegoen, eta jokatzeko egunean, plazan, *haize kontra* jardun behar izan zuen hasieratik; beti Agerreren atzetik eta bere itzalean. Basarriren iritzia hauxe izan zen Amezketakoaz:

*“Uno de los dos temía que perder. Artola salió derrotado, pero su pundonor profesional, su magnífico comportamiento, el interés y la combatividad que puso de manifiesto, merecen el más cálido y fervoroso de los aplausos. Lo que hizo el joven de Amézqueta, con su singular estilo, con sus asombrosos equilibrios, con su peculiar gimnasia, es algo que recordaremos durante mucho tiempo los que estuvimos en Azpeitia. La piedra de 200 la colocaba con extraordinaria facilidad a cierta altura sobre la rodilla de la pierna derecha; sosteniendo la piedra en sentido vertical, metía la espalda; se colocaba a cuatro pies con el pesado “fardo” encima; se enderezaba poco a poco, y lo nivelaba en el hombro. Es un ejercicio muy penoso y nada espectacular. Ya me lo suponía, y lo he dicho muchas veces desde estas columnas.*

*De no levantar la piedra de frente, os advertía que tenía que ser un ejercicio poco vistoso. Artola tiene una maña especial para cumplir su cometido, pero daba pena contemplar su complicado accionar. No está el público vasco. Aquí no se estila más que un procedimiento.*

...

*Resultado de la primera tanda de Artola: cinco alzadas. De la segunda: tres alzadas. Total: 8 alzadas.*

*Resultado total de “Aguerre”: ocho en la primera; cuatro en la segunda y cuatro en la tercera. Total: 16 alzadas”.*

Zergatik geratu zen Artola zortzi harri soilik jasota? Jauregirekin egindako apustuan lortutako hamairu jasoaldi haiekin ere galdu egingo zuen, baina gehiago estutuko zuen Agerre. Segurantzi osorik ez badut ere, Artola kiloz oso arindua joan ote zen...gehiegi argaldua, alegia; hori entzun izan dut jasotako jipoiaren esplikazio gisa. Kontua da, apustu hartan kukuak oker jo ziola gizagajoari...

Jose Migel Artolak izandako porrot honek ondorio beltzak ekarri zitkien. Aian jaio eta Usurbilen bizi izandako Udarregi bertsolariaren bertsoetako baten atarian oso modu egokian adierazten da, apustua egin eta galtzen denean, horrek eragiten duen sentimentua: *Galdubak oñazia*. Ez dago hobeto adierazterik zenbaitentzat apustua



galtzeak sortzen duen samina. Eta zenbat bider pentsatu ote zuen bere baitan: tristurak nago...

Hori horrela, ez zen gehiago plazaratu Jose Migel Artola. Ez zen nolana hikoia apustua galtzeak eragindako arantza. Eta okerreana, 1970ko ekainaren 4an, mundu honetakoak burutuak zeuzkala pentsatuz eta bere buruaz beste egin zuen, Alegiako tren-geltokiaren inguruan.

Garaipena garaipen eta porrota porrot, XX. mendean Amezketak ezagututako kargajasotzailerik onenetakoa izan zen Jose Migel Artola Artola. Ez da asko aldendu behar beste kargajasotzaile baten aipamena egiteko ere. Ugarten bertan jarraituko dugu.

### **Joseba Zubeldia ugartearraren arantza**

XX.mendean jaiotako harrijasotzaile amezketarrik ez dator "Albitzuri-aundi" harria menderatu dutenen zerrendan. Hori argi eta garbi erakusten du liburuaren

amaieran datorren bigarren eranskinak. Nahiz eta hor bere aipamena egin ez, Joseba Zubeldiak jaso zuela aitortu digu oraindik orain.

Berari sinestera –eta ez dut dudarik txikiena egingo– 1993ko urtean Albitzuri-aundiari heltzeko modua egin zuen. Ez zen bakarrik jardun. Garai hartan Goenatxo II.rekin zebilen prestatzen eta azkoitiarra ere Zubeldiaren ondoan egon zen harria jaso zuen unean; era berean, *Motriku* esaten ziotena eta Jesus Mari Zendoia ere. Zubeldiak gogoan duenez, amezketar bat baino gehiago ere bai. Horien artean, Etxaizko "Rubioa" esaten diotena; eta litekeena da Bixente Galartza bera ere bertan izatea.

Aurreneko heldualdian ez omen zuen asmatu harritzarrarekin, eta Goenatxo II.ren aholkua aintzat hartuz, beste modu batera saiatu zen bizkarreratzen. Bide horretatik bost bider jaso zuen. Berak badaki bere izena ez dela ikusiko Albitzuri-aundi harriaren menderatzailen artean, baina xehetasun zorrotzak eman ohi ditu jasotakoen artean dagoela ziurtatzeko.



*Lan ona eginda dago Zubeldia Igeldo-harriarekin.*

Hogeita bost urte zeuzkan Jose Zubeldiak. Iturbenea esaten zaion etxean sortua da 1968ko martxoaren 5ean. Atentzioa beti eman izan dio harrijasotzeak ume-umetatik. Gerora, Iñaki Perurenaren lorpenak-eta asko estimatzen zituen. Estimatu eta mirestu. Igeltseritzan hasi eta egun osoa pisuarekin lana egin behar. Batean, portland zaku batekin, hurrengoan birekin, hurrengoan hirurekin...Eta lankideak aldamenetik, xaxatzen: “Hik harrijasotzen hasi behar huake..”

Hala, 21-22 urte zituela Iñaki Gorostidirekin hasi zen bere burua prestatzen. Aldi batean Adunakoarekin ibili eta gero Goenatxo II.rengana jo zuen. Hamasei arroakoarekin ondo sentitzea izan zen aurreko urratsa, eta hurrengoa, bi gehiagokoa ere bizkarreratzea lortu zuen.

1992-1993an Harri Handiekin egindako Txapelketan parte hartu zuen: 225 kiloko errektangularra, 200 kiloko zilindroa, 175 kiloko kubikoa eta 150 kiloko bola. Harri guztiak jaso zituen Zubeldiak.


Harri bihurriak ere jasotakoa da. Errezilgoarekin bi urtetan izan zen onena. Urte batean, 22 bider berdindu zuen bizkarrean, eta hurrengoan, 25. Bostna minutuko bi txandatan jardun behar izan zuten Errezilgo saioan.

Igeldo harria esaten zaionarekin ere burrukatzea zer den badaki. Urte batean 11 jasoaldi eman zizkion, eta hurrengoan, 12.

1993ko abuztuaren 11an egindako proban sailkapena hau izan zen: 1-. Juan Jose Unanue Goenatxo II. 2-. Joseba Zubeldia. 3-. Jose Maria Telleria. 4-. Juan Migel Otaegi “Betelu”. 5-. Jose Anjel Sarasola. 6-. Aitor Amilibia. 7-. Joseba Ostolaza, guztietan gazteena.

Sasoirik ederrenean zegoenean uko behar izan zion bere zaletasunari. Bere buruaren gaitzerako ari zela berehala konturatu zen. Eta bere baitan iltzatua bezalaxe darama Albitzuri-aundi harria jendaurrean jaso gabe erretiratu izanaren arantza. Dena den, Amezketak eman duen harrijasotzailerik indartsuena izan da Joseba Zubeldia.







*Joseba entseguetan, aitaren begirapean.*



*Joseba Zubeldia, Amurrión, Harri Haundien txapelketan. 1993ko abuztuaren 16an.*